

EUZKO ALDERDI JELTZALEA-
PARTIDO NACIONALISTA VASCO (EAJ-PNV),
EUSKO ALKARTASUNA (EA) ETA
EZKER BATUA BERDEAK-IU (EB-BERDEAK)
ALDERDI POLITIKOEK GOBERNUA
OSATZEKO SINATU DUTEN KOALIZIO-
HITZARMENA
(VIII. LEGEGINTZALDIA)



AURKIBIDEA

Orr.

HITZAURREA

EUSKADIREKIN DUGUN GIZARTE-KONPROMISOA	1
--	---

KONPROMISO POLITIKOAK ETA PROGRAMA-OINARRIAK

1.- Partekatzen ditugun printzipioak	3
2.- Politika-konpromisoak: Bakea eta Normalizazio politikoa	4
3.- Programa-oinarriak	7

AURRERABIDERAKO GOBERNUA

I.- Eskubideen eta askatasunen aldeko Gobernua	8
II.- Elkartasunerako eta gizarte-justiziarako Gobernua	14
III.- Hazkundera eta ongizatea sustatzeko Gobernua	25
IV.- berdintasunerako eta hezkuntza eta kultura garatzeko Gobernua	35
V.- Gure Ingurumena hobetzeko Gobernua	44
VI.- Gure presentzia munduan proiektatzeko Gobernua	52
VII.- Gaur-gaurko Administrazioa, hurbila eta eraginkorra, jendearen zerbitzurakoa	56

Hitzaurrea

EUSKADIREKIN DUGUN GIZARTE-KONPROMISOA

Apirilaren 17an izandako hauteskundeen ondoren legegintzaldi berri bat ireki zaigu, eta Euskadiko herritarrek agerian utzi dute euskal gizartea anitza dela. Errealitate horrek berekin dakar negoziazio prozesu ireki eta bazterketarik gabekoa ezarri beharra talde eta ikusmolde politiko guztien artean, bide horretatik oinarritzko Akordioak lor ditzagun Bake eta Normalizazio Politikorako benetako prozesuari aurre egiteko.

Aniztasuna eta elkarrekiko begirunea onartzea da, hain zuzen ere, Gobernu-hitzarmena lortu dugun hiru alderdion koalizioaren ideia nagusia. Hiru indar politiko gara, desberdinak, eta gizartearen beraren ondare aberasgarri gisa hartu dugu aniztasunaren printzipioa. Hori dela-eta, hitzarmenak zabaltzea eta euskal gizartean diren ikusmolde politikoen artean elkarguneak lortzea dugu helburu.

Legegintzaldi honetan, denok, gizarteak, erakundeek eta alderdi politikoek, indarkeria-eza eta elkarrizketa politikoa hartu behar ditugu ardatz nagusi, euskal gatazka izeneko behin betiko konpontzeko eta Euskadiren gizarte-erakuntzan aurrera egin ahal izateko.

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdi politikoek, euskarri horiek (indarkeria-eza, elkarrizketa eta aniztasuna) oinarri hartuta, hiru konpromisori erantzun genion aurreko legegintzaldian. Honakoak ziren konpromisoak:

- Pertsona guztien giza eskubideak eta bizitza babesteko konpromiso etikoa; euskal gizartearen aitzinean izan ginen indarkeriaren eta eskubide zibil eta politikoen murrizketaren aurka.
- Euskal gizartearen borondatea errespetatzeko konpromiso demokratikoa, Estatutu Politiko Berrirako Proposamena, Eusko Legebiltzarrean gehiengo osoz onartu zena, gauzatuta.
- Euskadiren gizarte-erakuntzarekiko konpromisoa, gizarte bidezkoagoa eta solidarioagoa lortzen lagundu duten aurrerapenaren aldeko politiken bidez.

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdi politikoen ustez, azken lau urteotan elkarrekin egindako lanak ondorio onak izan ditu euskal gizartean. Egindako bidea eta aurrerapena nabarmenak izan dira, bai esparru etikoan zein demokratikoan, eta bai euskal herritarren ongizate-adierazleen hobekuntzan ere.

Baina beharrezkoa da aurrera egiten jarraitzea. Bakea eta Normalizazio Politikoa lortu behar ditugu behin betiko eta, gizarte-aurrerapenari dagokionez, Europako herrialde aurreratuenen artean jarri behar dugu Euskadi.

Horregatik, bada, Euskadirekin dugun gizarte-konpromisoa berretsi nahi dugu, eta gure indarrak elkartu hiruko Gobernu berria izan dadin gizaritari egonkortasuna emango dion motorea eta Normalizazio Politiko eta Bakegintzako prozesuetako eragile aktiboa eta dinamizatzailea.

Horixe da gure lehentasun behinena. Badakigu Bakerako aukera izango dugula. Badakigu Normalizazio Politikorako aukera ere izango dugula. Badakigu aukera izango dugula negoziatzeko eta gure etorkizuna erabakitzeke. Eta aukera horiek guztiak guztiontzako irtenbide positibo bilaka daitezen lagundu nahi dugu.

Euskal gizarteak berriro ere erakutsi du uste osoa duela gudan, etapa berri honen aitzindari izan gaitzen. Hiruko Gobernu osatzen dugun hiru alderdion artean, EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak, azken hauteskundeetan emandako bozken %44 ordezkatzen dugu.

Badakigu, bestalde, gehiengo erlatibo hori zabaldu egin beharko dugula, Euskadik legegintzaldi honetan dituen erronkei erantzungo badie, Legebiltzarreko beste indar batzuekin akordioak lortuz eta adostasunaren bidez. Halaxe eskatzen digute gure erantzukizun politikoak eta euskal gizarteak berak ere.

Geure egiten dugu erantzukizun hori. Koalizio-hitzarmen hau sinatu dugun alderdiok adierazten dugu etengabeko negoziazioa bultzatu nahi dugula akordioak lortu ahal izateko. Gure atak erabat irekita izango dira, inor baztertu gabe.

Hala bada, batetik Bakea eta Normalizazio Politikoa eta, bestetik, Euskadiren gizarte-aurrerapena izango dira hurrengo legegintzaldian Gobernu honen jardunaren helburuak.

Gure ustez, helburu horiek ez dira Gobernuarienak edo Gobernu babesten dugun alderdienak soilik, euskal gizarte ia osoaren gogo bizia islatzen baitute.

Horregatik, berriz ere eskaini nahi diegu gainerako alderdiei elkarrizketa zintzoa hasteko aukera, izan gaitzen, bide horretatik, gure arteko desadostasun politikoak konpontzeko gai; Bakea eta gure gizaritearen ongizatea ditugu esku artean .

Elkarrizketa zintzoa eta emankorra izango bada, bat egin beharko dugu gure gizaritearen bizikidetzaren oinarri diren bi printzipiotan. Honakoak dira:

- Euskal herritar guztien giza eskubideak eta askatasun zibil eta politiko guztiak errespetatzeko printzipio etikoa.
- Bere etorkizuna bakearen eta demokraziaren bidetik, ez beste inola, erabaki ahal izateko Euskal gizarteak duen borondatea errespetatzen duen printzipio demokratikoa.

Bi helburu horiek aintzat hartuta eta bi printzipioak oinarri ditugula, bi jarduera-ardatz handitan egituratutako AURRERABIDERAKO GOBERNUA nahi dugu. Hona hemen Gobernuaren ardatzak:

1. Bakea eta Normalizazio Politikoa.
2. Euskadiren gizarte-aurrerapena.

Konpromiso politikoak eta programa-oinarriak

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok osatzen dugun Gobernu aurrerakoiak honako printzipio, konpromiso politiko eta programa-oinarriak ditu ardatz:

1) Partekatzen ditugun printzipioak

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak, nor bere proiektu politiko eta ideologikoak defendatzeko askatasunari kalterik eragin gabe, Koalizio-hitzarmen honetan ondorengo jarduera-printzipioak partekatzen ditugu:

Lehenengoa.-

1. Inor ere baztertu gabe, pertsona guztien giza eskubideak eta askatasun zibil eta politikoak errespetatzeko konpromisoa adierazten dugu.
2. Berresten dugu Euskal Herria hain denbora luzean jasaten ari den gatazka politikoa konpontzeko, Bakean eta Demokrazian oinarritutako bideak baino ez ditugula urratuko.
3. Indarkeria eta giza eskubideak, banakakoak eta taldearenak, urratzen dituzten ekintza eta adierazpen guztiak gaitzesten ditugu.
4. Hala bada, euskal gizartearen izenean, ETari eskatzen diogu adieraz dezala, argi eta garbi, behin betiko utziko diola indarkeria erabiltzeari helburu politikoak lortzeko.

Bigarrena.-

1. Euskal gizartean diren ikusmolde politiko guztien arteko elkarrizketa eta negoziazioaren aldekoak gara, inor baztertu gabe, hori baita normalizazio politikoaren funtsezko oinarria.
2. Alderdien Legea indargabetzea defendatzen dugu, eskubide zibilak urratzen dituen tresna baita eta euskal gizartearen zati handi baten ordezkartza politikoa murrizten baitu.
3. Printzipio demokratikoa izaki, euskal gizarteak bere etorkizuna erabakitzeko duen eskubidea defendatzen dugu, normalizazio politikorako tresna baita eta Euskadin bizi diren ikusmolde politikoen bilgune ere badelako.

4. Erabakitze eskubideari dagokionez, euskal indar politikoen artean ahalik eta adostasun handiena lortzearen aldekoak gara, eta Estatuarekin hitzarmen bat negoziatzeko konpromisoa hartzen dugu, euskal gizartearen erabakiak izan dezan isla esparru juridiko-politikoan.

Hirugarrena.-

1. Estatuan eskumena duten botereen eta ETAre arteko elkarrizketa-prozesuen alde agertzen gara, indarkeria behin betiko buka dadin, betiere aintzat hartuta auzi politikoak herri-borondatearen ordezkariak konpondu behar dituztelako printzipio demokratikoa.
2. Hitz ematen dugu gogotsu jardungo dugula indarkeriaren eta terrorismoaren biktime guztiek aintzatespena, babesa eta elkartasuna jaso dezaten.
3. Espainiako Gobernuari eskatzen diogu giza eskubideekiko espetxe-politika errespetuzkoa gara dezala eta adierazten dugu prest gaudela, gure bizitzatik indarkeria behin betiko baztertzearren, beharrezko diren humanizazio eta adiskidetze ekintza guztiei bide emateko.

2) Politika-konpromisoak: Bakea eta Normalizazio Politikoa

1.1) Euskadi baketsua

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak ziur gaude hurrengo legegintzaldian berriz ere izango dugula aukera Bakea gauzatzeko. Ziurrenik, aukera historikoa izango da gerra, indarkeria, terrorismoa eta giza eskubideen urraketa bizi izan duen belaunaldiarentzat.

Min handiegia, oinaze handiegia Herri batentzat. Bakea merezi dugu. Bakea aldarrikatzen dugu. Eta badugu eskubidea gure ametsa gauzatzeko. Bakea izango da, beraz, Gobernuaren eta Gobernu osatzen dugun alderdion lehentasuna. Gogo biziz arituko gara Bakearen alde. Adorez, inor baztertu gabe, eta guztiei eskatuko diegu konpromiso bera, Bakea baita geuretzat eta geure seme-alabentzat etorkizunerako egin dezakegun inbertsiorik onena.

Azken 26 urteotan saiatu gara bakea lortzen, baina ezin izan dugu lortu.

Egia da, izan ere, aurrera egin dugula. Gaur egun gizartearen gehiengoak arbuiatzen ditu indarkeria eta terrorismoa ekintza politikorako tresna gisa, gizartearen gehiengoak bere egiten du biktimizekiko elkartasun-konpromisoa eta gehienek uste dute elkarrizketa eta errespetua direla gatazkak konpontzeko bidea. Aurrerapen handia da noski, baina zoritxarrez Euskadin badira oraindik ere indarkeria eta tolerantzia eza jasaten jarraitzen duten herritarrak, eta errealitate gordin horrek dirauen bitartean ezin dugu, inola ere, Bakea lortzeko ahaleginean etsi.

Etapari berri baten atarian gaude. Beste aukera bat dugu. Inork ezin du dagoeneko beste aldera begira geratu. Euskal gizarteak ez luke horrelako jokabiderik onartuko. Benetako Politika egiteko garaia heldu da. Baina Politika egiteko, armak isildu behar dira. Ez dugu horrekin esan nahi elkarrizketari alde aurreko baldintzak jartzen ari garenik. Hori baino errazagoa da: indar politiko gehienak bat

datoz honako bi premisetan: Lehena da terrorismoaren arazoa konpontzeko gatazken sustraiei heldu behar zaiela eta, bigarrena, Bakeak ez duela prezio politikorik, baina politikak asko egin dezakeela Bakearen alde.

1.2) Bizitza eta giza eskubideak errespetatzea: abiapuntua

Guztion bizitzaren eta giza eskubideen errespetuarekiko konpromisoa da bizikidetzako edozein arazo konpontzeko abiapuntua.

Ez da proiekturik, ez eta etorkizuneko konponbiderik ere oinarri ustelen gainean eraiki daitekeenik.

Heriotza guztiak dira porrot kolektiboa. Horregatik, indarkeria modurik gordinenean jasan dutenen aintzatespenaren eta horiekiko elkartasunaren gainean eraiki behar dira bakea eta adiskidetzeta. Indarkeriaren biktima guztiei babesa eta laguntza ematen euskal gizartearekin batera gogo biziz aritzea da gure konpromisoa.

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdi politikook nahi dugu alderdi guztien arteko ahalik eta adostasun handiena lortzea bakerako eta adiskidetzeko prozesuan zintzo lan egin dezagun, indarkeriaren eta terrorismoaren biktima guztiak aintzatetsita eta horiekiko elkartasuna erakutsita. Biktimek beren egoera lasgarria gainditzeko eta indarkeriaren bidegabekeriaren eta bakearen kulturaren balioen erreferente iraunkorra izateko, ezinbestekoa da biktimen mina eta oinazea politikoki ez erabiltzea.

Indarkeria onartezina dela adierazten dugu, baina berdin-berdin aldarrikatzen dugu indarkeria ezin dela askatasunak murrizteko koartada izan. Giza eskubideetan ez da salbuespenik, banaezinak dira giza eskubide guztiak eta unibertsalak, guztientzakoak, ere bai.

Hori dela-eta, eta uste dugulako abiapuntuko printzipio hau funtsezkoa dela, Gobernuakideok hitz ematen dugu giza eskubide *guztien* aldeko lanean jarraituko dugula eta gogotsu azalduko garela pertsona *guztien* eskubide zibilak eta askatasun politikoak urratzearen aurka.

1.3) Bazterketarik gabeko elkarrizketa Normalizazio-akordioa lortzeko

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak konpromisoa hartuta gaude pertsona guztien giza eskubideak eta askatasuna errespetatzeko, eta, era berean, Herri gisa geure etorkizuna erabakitzeko errespetuarekin ere, bat etorritik Eusko Legebiltzarrak, 1990eko otsailaren 15ean, onartutako autodeterminazio eskubidearekin. Konpromiso hori abiapuntu, euskal gizarteak askatasun osoz eta demokratikoki hartutako erabakiak errespetatzeko eskatzen diogu Estatuari.

Guztiok bat gatozen printzipio demokratikoa da hori, eta gobernu-koalizio honek berriro ere dio legegintzaldi honetan iritsi dela unea, inor baztertu gabe, elkarrizketa bateratzaile bati ekiteko. Horri esker lortu ahal izango da Akordioa, alegia, euskal gizartearen benetako normalizazio politikoaren sustraian dauden alderdi guztien ikuspegi anitz eta zilegi guztiak bilduko dituen Akordioa.

Gobernu-koalizio hau osatzen dugun alderdiok, EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak, uste dugu euskal gizartea heldu askoa dela bere etorkizuna erabakitzeko eta Espainiako Estatuarekin eduki nahi duen harreman politikoen markoa, betiere bizikidetzeta giltzarri, ezartzeko.

Bizikidetza demokratikoan oinarritutako benetako harremanak erabakitzeko askatasuna izan behar du ardatz, eta ez, ordea, inposaketa. Horrenbestez, Normalizaziorako edozein Akordioak jaso beharko du, batetik, euskal gizarteak bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea duelako printzipio demokratikoa, betiere indarkeriarik eta inposaketarik gabe, eta, bestetik, aniztasunarekiko errespetua eta hitzarmenarekiko konpromisoa, elkarren onarpenetik abiatuta.

Ildo horretatik, gure ustez Normalizaziorako Akordioaren adierazpideak izan beharko lirateke autogobernu politikorako eta Euskadiren gizarte-eraikuntzarako eredu jakin bat, eta Espainiako Estatuarekiko harremanetarako arau-marko bat ere bai.

Etapari berri baten atarian gaude. Euskal gizartearentzat itxaropenez beterikoa den garai honetan alderdi politiko guztiek dugu beste aukera bat akordio zabalagoak lortzeko, eta abiapuntu hartzen baditugu desberdinen arteko elkarrizketa politikoa, eskuzabaltasun politikoa eta beste proposamen batzuen kontraste demokratikoa, orduan sortuko da dagoenik eta normalizazio aukera sendoena.

Irekita daude izan litezkeen aukera guztiak. Akordio berrirako aukeraren alde sendo eta erabat sinetsita ari gara, eta, era berean, Eusko Legebiltzarrak hartutako erabakiekiko errespetu osoa adierazten dugu. Horri dagokionez, gure ustez, Legebiltzarrak gehiengo osoz eta demokratikoki onartutako Proposamenak, bai eta beste batzuk ere, baditu normalizazio politikorako akordioa lortzeko oinarri sendoak.

1.4) Negoziatzeko eta erabakitzeko legegintzaldia

Honako koalizio-hitzarmen hau sinatzen dugunok, EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdi politikoen, Bakea lortzeko eta Normalizazio Politiko eta Bizikidetzarako Akordioa erdiestearren, alderdi politiko guztien -inor baztertu gabe- arteko elkarrizketaren eta negoziazioaren alde gaudela adierazten dugu.

Badira Normalizazio Politikorako berebizikoak diren zenbait alderdi, hau da, Euskal Herria onartzea erabakiak hartzeko subjektu gisa, lurraldetasuna, erabakitzeko eskubidea eta Estatuarekiko alde bitariko Hitzarmena, bizikidetzarako tresna gisa. Alderdi horiei buruz euskal gizartean diren ikuspegi eta joera politikoen artean adostasuna lortze aldera, elkarrizketarako eta prozeduretarako hitzartzen diren tresnak bultzatuko ditugu.

Hortaz, elkarrizketarako eta negoziazioarako legegintzaldia da honakoa. Akordiorako legegintzaldia. Eta erabakitzeko legegintzaldia ere bai.

Konpromiso hori aurrera eraman ahal izateko, Eusko Jaurlaritzak baimena eskatuko dio Eusko Legebiltzarrari, indarkeriarik gabeko jokaleku batean eta inor baztertu gabe, euskal gizarteari kontsulta egiteko erdietsitako Akordio Politikoa berretsi dezan.

Legebiltzarraren baimen horrek bildu beharko ditu, betiere hitzartu ondoren, kontsultarekin zerkusua duten alderdiak, adibidez, indarkeriarik ez dagoela eta bazterketarik ere izango ez delako berrespena, emaitzak onartzeko ezarritako printzipio demokratikoak, eta negoziatzeko eta antolamendu juridikoan sartzeko prozedura.

3) Programa-oinarriak

Partekatutako printzipio eta konpromiso politiko horiek ardatza direla, EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok Gizarte-aurrerabiderako Gobernuak garatuko dugu, eta jokatuko dugu honako programa-oinarri hauekin bat etorrira:

1. Giza eskubideen eta askatasunen defentsa.
2. Elkartasuna eta gizarte-justizia
3. Hazkundera eta ongizatea.
4. Berdintasuna eta hezkuntza- eta kultura-garapena.
5. Ingurumenaren hobekuntza.
6. Euskadiren presentziaren proiektzioa munduan.
7. Pertsonen zerbitzurako kudeaketa eraginkorra eta gardena garatzea.

Aurrerabiderako Gobernua

I.- ESKUBIDEEN ETA ASKATASUNEN ALDEKO GOBERNUA

Gure zeregin politikoaren ardatz eta oinarri izan da pertsona guztien eskubideak eta askatasunak defendatzea, eta aurrerantzean ere, honako VIII. Legegintzaldian, horixe izango dugu geure estrategia politikoaren helburu.

Indarkeria zentzugabekeria hutsa da. Bestela pentsatzen duenaren bizitzaren aurka erasotzea, hura hiltzea edo torturatzea eta hari estortsioa egitea humanitate osoaren aurkako krimena da, eta horrelako jokabideek ez dute tokirik gure gizarte aurreratu eta demokratikoan, non hitzaren eta arrazoiaren indarra baino ez baitira zilegi edozein ideia defendatzeko. Eta arrazoi horrek gizartearen gehiengoaren babesa edukiko du, gizarte osoaren babesa.

Indarkeria, bestalde, ezin da polizia-, lege – edo auzi-bideetatik askatasunari murrizketak ezartzeko koartada izan. Edozein murrizketaren aurka gaude, gure ustez ez dagoelako salbuespenik demokraziaren defentsan.

Horregatik, bada, EAJ-PNV, EA, EB-Berdeak alderdiok lau konpromiso jakinetan oinarritzen dugu eskubideen eta askatasunen aldeko jarduera. Honakoak dira konpromisoak:

- 1) Gure konpromisoa Giza Eskubideekiko errespetuarekin.
- 2) Gure konpromisoa askatasun zibil eta politikoen eta Bakearen Kulturaren alde.
- 3) Gure konpromisoa Justizia Administrazio eraginkor eta demokratikoarekin.
- 4) Gure konpromisoa pertsonen segurtasunarekin.

1) Giza Eskubideak errespetatzea

Aurreko legegintzaldietan garatutako konpromiso etikoari jarraiki, EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok ETArri eskatzen diogu desagertzeko, indarkeria eta terrorismoa baitira giza eskubideen aurkako mehatxu nagusiak. Gure gizartea gizarte-, politika- eta kultura-identitate askoren batuketa da, aniztasunaren errespetutik abiatuta integrazioa bermatzen duen gizartea, alegia. Horregatik, bada, ez dago onartzerik inori mehatxu egitea edo jazartzea bere ideia edo iritz politikoak ETAREN pentsamendu bakar eta baztertzailarekin bat ez datozelako.

Indarkeriak ez du tokirik ziklo politiko berri honetan. Bizikidetzaren bidezkoa eta giza eskubideak errespetatzen dituen lortzekotan eta bermatzekotan, behar-beharrezkoa, ezinbestekoa eta premiazkoa da ETAK su-etena deklaratzeko, eta aldi berean, Estatuak berak ere egoera baretzeko neurriak hartzea.

Biktimak funtsezkoak dira baketze bidean. Haien mina arinduko bada, gizarteak eta erakundeek babesa eman eta ulertu egin beharko diete. Eta gizarte eta erakunde horiek aitortu beharko dute aurreko legegintzaldietan garatutako ekimenak ez ezik, beharrezkoa dela lanean jarraitzea bultzatzeko elkartasunean eta errekonozimendu etikoan sakontzen lagunduko duten ekimenak ere. Bakearen eta adiskidetzearen kulturaren militarizazioaren duen gizartearen eraiki beharko dugu guztion artean. Ezinbestekoa da.

Indarkeriaren biktimekiko begirune horrek garrantzitsuak dira EAJ-PNV, EA, EB-Berdeak alderdiak pertsona guztien, eta, bereziki, indarkeriaren eta terrorismoak kaltetutako giza eskubideen defentsan eta errespetuan sakontzera, neurri hauen bidez:

- Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza indartzea, biktimen eta esparru horretan diharduten Eusko Jaurlaritzaren sailen arteko elkarrizketa eta koordinazio organoa izan dadin.
- Gure herrian milaka lagunek jasaten duten jazarpen-indarkeriaren aurkako Plana aplikatzea, bizitzeko, askatasunerako, berdintasunerako eta aniztasunerako duten eskubidea bermatzearen.
- Lehen eta bigarren hezkuntzan, giza eskubideei buruzko prestakuntza eta heziketa jasotzeko programak bultzatzea.
- Lankidetzaren hitzarmena sinatzea Nazio Batuen Goi-komisarioarekin, Giza Eskubideen alorrean euskal profesional eta teknikariak prestatzeko eta gaitzeko programak garatzearen.
- Giza eskubideen aldeko sentsibilizazio-kanpainak garatzea, betiere sektore ahulenei arreta berezia eskainita.
- Giza Eskubideen aldeko esparruan diharduten elkarte eta erakundeekin batera jardutea eta giza eskubideen edo horien babes-mekanismoen alorreko nazioarteko testuak zabaldu eta hobetzeko lanetan diharduten estatuko zein estatuarteko sareetan parte hartzea.
- Biktimen oroipenean parte hartzea eta haien bizi-eskarmentua erabiltzea eraikitzeko memoria kolektiboa, bakearen eta adiskidetzearen kultura indartzeko lagungarri izango dena. Ildo horretatik, hitz ematen dugu gerrako biktimek jasandako sufrimendua aitortzearen, memoria historikoa berreskuratzeko programa onartuko dugula eta desagertutakoei buruzko ikerketa bultzatuko dugula, eta, orobat, memoria horren ikerkuntza eta zabalkundea sustatuko ditugula.
- Biktimak alderdien arteko liskarretatik kanpo geratzeko lan egitea. EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok geure egiten dugu biktimak helburu politikoetarako ez erabiltzeko konpromisoa, eta azken urteotan hartutako legebiltzarreko akordioak berresten ditugu.
- Giza Eskubideen eta Askatasunen Behatokia sortzea, pertsona guztien, salbuespenik gabe, giza eskubideak defendatzen direla zaintzeko.

Bakearen aldeko apustuak eskatzen du indarkeriaren biktimak aintzatestea, eta, bestalde, pertsona guztien edozein giza eskubideren urraketaren aurkako konpromiso aktiboa. Ezin da *ilunberik* izan

giza eskubideen aldeko jardunean. Koalizio-hitzarmena sinatu dugun alderdiok adi egongo gara eskubideak eta askatasunak murrizteko neurririk izan ez dadin. Horrenbestez, EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok agintzen dugu Gobernuaren eskutik honakoa egingo dugula:

- Espetxe-politika berriro aztertzeke eskatuko dugu, presoak beren familia-ingurunera hurbiltzearen.
- Presoen eskubideak eta dagozkien prozesu-bermeak erabat defendatuko ditugu.
- Atxilotuen laguntzarako eta arretarako protokoloak ebaluatu, kontrolatu eta hobetuko ditugu, batez ere inkomunikazio erregimenean daudenenak. Inkomunikazio erregimena ez da sistematikoki aplikatuko, kasuz kasu aztertuko da eta epaileari eskatuko zaio baldin eta nahiko arrazoiturik badago. Beharrezkoa dela iritziz gero, eta epaileak hala erabakitzen badu, zorrotz aplikatuko da Herrizaingo, Justizia eta Osasun sailen artean hitzartutako Inkomunikazio Erregimenean dauden Pertsonen Eskubidek babesteko Protokoloa.
- Laguntza ekonomiko eta sozialak indartzea, askatasunik gabe daudenei giza, gizarte-, osasun- eta lege-laguntza ematearren.
- Gizarteratzeko neurriak egituratzea eta adostea.
- Askatasunen edozein murrizketa, tratu txarrak eta tortura salatzea.

2) Askatasun zibil eta politikoen eta Bakearen kulturaren defentsa

Behar-beharrezkoa da bakearen kulturaren militarizazioa. Horrek esan nahi du, indarkeria gaitzesteaz gain, bizi eta barnerratu behar direla hainbat erreferentzia etiko, besteak beste, norbanakoaren eta taldeen giza eskubideekiko errespetua, berdintasuna, elkartasuna, gizarte-justizia, aniztasunarekiko errespetua eta askatasun zibil eta politikoen defentsa aktiboa.

Indarkeria inola ere ezin da erabili pertsonen eta Herrien askatasun zibil eta politikoen edo eskubide demokratikoen murrizteko aitzakia gisa.

Justiziaren, printzipio demokratikoen konpromisoaren eta askatasun erregimena sakonduz behar da Bakea.

Gobernu-Koalizioa osatzen dugun Alderdiok, indarkeria arbuiatu ez ezik, askatasunak murrizteko neurri guztien aurka gaudela ere adierazten dugu, eta, bereziki, hedabideak ixtearen edo alderdi politikoen baztertearen aurka, zuzenbideko Estatu demokratikoen zimenduak hausten baitituzte neurri horiek.

Eskubide zibil eta politikoen errespetuaren ikusmolde etikoa abiapuntu dugula, EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok honakoa agintzen dugu:

- Alderdien Legea indargabetzeko eskatuko dugu.
- Erabakitzeke dauden hedabideen auziak artxibatzeke eskatu eta aldarrikatuko dugu.

- Politika-, ekonomia- eta gizarte-eragile guztiekin batera lankidetzan, bakea eta normalizazio politikoa lortzeko prozesuaren buru izango gara.
- Muga eta bazterketarik gabeko elkarrizketari bidea emango diogu, talde politiko guztiek, beren ideiak defendatzeko markoa ezarrita, eta, hala badagokio, berdintasun baldintzak betetzen direla, beren proiektuak gauza ditzaten bakearen eta demokraziaren bideetatik.
- Hezkuntzaren esparruan berariazko programa eta proiektuak abiaraziko ditugu giza balioetan eta bakearen eta tolerantziaren kulturaren prestakuntza eskaintzeko. Horretarako, hala badagokio, behar diren eta egokiak diren arauak ezarri eta antolaketa- eta sustapen-neurriak hartuko dira.
- Bakerako giza eskubidea onartzea bultzatuko dugu nazioartean, Bakearen Giza Eskubideari buruzko Nazioarteko Kongresuko ondorioekin bat etorrira.
- Adierazpen, manifestazio eta parte hartze politikoari dagozkion oinarrizko eskubide eta askatasunak bermatuko ditugu.

3) Justizia Administrazio eraginkor eta demokratikoa

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok uste dugu beharrezkoa dela justizia izatea beregaina, eraginkorra, orekatua eta sexismorik gabea, gizarte-aldaketekiko sentibera eta, funtzionamenduari dagokionez, modernoa.

Justizia Administrazioak, gainerako zerbitzu guztiek bezalaxe, euskal herritarren esanetara egon behar du, eta inbrikatuta egon behar du ematen den errealitatean. Horretarako, betiere gure autogobernuaren markoaren barruan, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan Botere Judizialaren Gobernu dagokion Euskal Kontseilu Judiziala izatearen aldekoak gara.

Era berean, presondegien transferentzia eskatzen dugu berriz ere, eta gaur egungo espetxe-politika aldatzeko ere eskatzen dugu, presoan duintasuna eta giza eskubideak bermatzearen, izan ere zigorrak gizarteratzea du helburu.

Eusko Jaurlaritzatik, hitz ematen dugu justizia ereduari buruzko eztabaida sakon eta lasaia bultzatuko dugula. Eztabaida horretan esku hartuko dute eragindako talde guztiek. Eta, badakigunez Justiziaren osaketa berria, Autonomia-estatuarekin bat etorri behar dena, oso garrantzitsua dela, asmoa dugu VIII. Legegintzaldi honetan honako ekimen hauei ere heltzea:

- Bulego Judizialen Organizazio-plana onartzea. Funtzioen espezializazioan eta taldekatzean eta zerbitzuaren arrazionalizazioan egongo da oinarrিতuta, eta ebaluazio eta zuzendaritzako gaiak jasoko ditu.
- Lankidetz-organoa sortzea. Operadore juridikoek hartuko dute parte, eta Euskadiko Justizia Administrazioari buruzko bilgune, hausnarketarako toki eta parte hartzeko organoa izatea du helburu.
- Bitartekaritza zerbitzuak sortzea, batez ere zigor-esparruan, gatazkei irtenbidea emateko sistema alternatiboak eskaintzearen.

- Gazteen prestakuntza sustatzea karrera judizialeko, fiskaleko, idazkari juizialen eta mediku forentseen oposaketetan, eta Bulego Judizialeko langileen prestakuntza bultzatzea.
- Doaneko laguntza juridikoaren erantzunaren kalitatea eta bizkortasuna indartzea. Horretarako, prestakuntza emango zaie abokatuei eta txanda espezifikoko berriak sortuko dira.
- Informatika eta telekomunikazioetako III. Plana aplikatzea eta Informatika eta telekomunikazioetako IV. Planari ekitea, justizia.net herritarrentzako eta justiziako profesionalentzako informazio-atariaren aplikazioak eta justizia.bat, antolakuntza judizialaren arrazionaltasunera eta produktibitatera bideratuta dagoena, sendotuz.
- Administrazio Justizian hizkuntza-normalizaziorako neurriak ezartzea. Neurri horiek izango dira, besteak beste, honakoak: Lanpostuen Zerrenda egitea, dagozkion hizkuntza-eskakizunak egokituta, betiere Euskal Administrazioaren hizkuntza-planifikazioaren irizpideekin bat etorrira; lanbide heziketa; euskararen erabilera bultzatzea bulego judizialean; sentsibilizazio programak; Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin, Justizia Ministerioarekin eta eskumena duten erakundeekin euskalduntze-hitzarmenak sinatzea; abokatu eta prokuradoreen artean euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko proiektuak bultzatzea; eta, agiriaren normalizazioa eta lege-testuen itzulpena.
- 2004-2007 Gazte-justiziako Planean aurreikusitako jarduerak garatzea, eta jarraitzea adingabekoen zentroak (Landa, Urtuella eta Aramaio) berritzeko eta birgaitzeko prozesuekin; eta ebaluatu ondoren, 2008-2012 Plana egitea.
- Egoitza judizialeko (Gipuzkoako Probintzia-auzitegia eta Azpeitiko, Bergarako eta Getxoko Justizia-jauregiak) planean jasotako jarduerari ekitea.

4) Pertsonen segurtasuna

Segurtasuna gizarte-bakerako baldintza da, eta giza, politika- eta gizarte-eskubideen babes eta garapenaren zerbitzura egon behar duen tresna ere bada. Segurtasuna planteatzen dugu askatasun publikoen zerbitzura dagoen tresna gisa. Horregatik, segurtasun-politiken koordinazio eta planifikazio zehatzaren alde gaude, oinarri demokratikoetan malgutasunik gabea eta gizarte-errealitate aldakorrera egokituko dena.

Azken batez, gizarte-politika osoan koordinatutako eta berari lotutako segurtasun publikoko politika, eraginkortasuna lortuko duena askatasunaren kaltetan baino, askatasunaren berme gisa. Hitz ematen dugu segurtasun-politikari eutsiko diogula eta hobetuko dugula honako neurri hauen bidez:

- ISO 9002 kalitatezko ziurtagiria ezartzea polizia-zentro guztietan.
- Eskatutako jardueretan, erreakzio-gaitasuna handitzea.
- Beste polizia-erakundeekiko koordinazioa eta informazio-trukaketa erraztea, lankidetzahitzarmenen bidez.

- Schengeneko Akordioan sartzeko beharra eta Europako foroetan ere parte hartzeko beharra defendatzea.
- Giza baliabideak eta baliabide materialak gehitzea eta emakumeen aurkako indarkeriari, informatika- eta teknologia-delinkuentziari eta antolatutako kriminalitateari buruzko informazio espezialdua eskaintzea etengabe.

II.- ELKARTASUNERAKO ETA GIZARTE-JUSTIZIARAKO GOBERNUA

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdien ustez, gizarte-politikaren erreferente nagusiak izan behar dira Elkartasuna, Berdintasuna eta Gizarte-justizia. Era berean, gure iritziz, euskal erakundeen ekonomia- eta gizarte-politiken alorreko erabakiak bideratu behar dira herritar guztiek ahalik eta ongizaterik handiena izan dezaten, eta ekonomia euskal herritarren beharrek bateratzearen aldekoak gara. Gizarte aurreratu demokratiko batean ekonomia dago pertsonen ongizatearen esanetara eta ez, ordea, herritarrak interes ekonomikoen zerbitzura.

Gure gizarte-gastuak Gobernuaren aurrekontuaren %73 hartzen du. Bestalde, Euskadiko biztanleko batez besteko gizarte-gastua, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumena duen arloetan (osasuna, hezkuntza, prestakuntza, gizarteratzea, hirugarren adina, familia, enpleguaren sustapena, etxebizitzaren sustapena) Estatuko batez bestekoa baino %20 handiagoa da.

Dena dela, gizarte solidarioagoa, berdinagoa eta justuagoa eraikitzen jarraitu nahi dugu, babes gutxien duten pertsona eta taldeak babestuko dituen gizarte eta helburu izango duena euskal herritar guztien bizitza-kalitatea eta ongizatea.

Jomuga hori izanik, gure ongizate-estatuaren bizkar-hezur diren politiketan sakonduko dugu, honako ezaugarriak dituen gizarte-ongizatea lortzeko: enplegu egonkorra eta eskubideduna, lan-osasun eta segurtasuna, doako osasun-zerbitzua, guztientzako, bereziki babes gutxien dutenentzako, gizarte-babesa, denon eskurako etxebizitza duina, gure zaharren bizitza-kalitatea, familiarentzako arreta eta migrazio-politika justua eta aurrerakoa dituen gizarte-ongizatea.

1) Enplegu egonkorra eta eskubideduna

Aurreko legegintzaldian zehar enplegua sortu da, jarduera-tasak handitu egin dira eta gehiago dira Gizarte Segurantzaren afiliatutakoak; azken hogeituro urtetako langabezia-tasarik txikiena lortu dugu, batez ere emakumeen eta gazteen artean. Aurrera egin dugu, baina oraindik ere bide luzea dugu egiteko.

Hori-dela eta, Euskadin erabateko enplegua ezartzeko helburua izanik, EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiek hitz ematen dugu, lehenengo eta behin, Estatuari eskatuko diogula enplegurako politika aktiboen transferentzia; politika horietan bilduko da lanbide-prestakuntza eta prestakuntza etengabearen transferentzia eraginkorra, eta bat etorriko da Kontzertu Ekonomikoaren sistemara egokitutako finantziario-irizpideekin. Eta, bigarrenik, hitz ematen dugu Enplegurako Euskal Legea egin eta onartuko dugula. Lege horren markoan garatuko da Enplegurako Erakundearteko II. Plana (2003-2006), bai eta Enplegurako Erakundearteko III. Plana (2007-2010) ere, Foru Aldundiekin, EUDELekin eta gizarte-solaskideekin batera. Eta, orobat, hitz ematen dugu erabat garatuko dugula Enplegurako Euskal Zerbitzua (LANBIDE), leihatila bakar gisa.

Ildo horretatik, enplegu egonkorra eta kalitatezkoa lortzera bideratutako izaera unibertsaleko politikak bultzatzen jarraitzeaz gain, babes gutxien duten taldeak gizarteratzeko berariazko neurriak sustatzen ere jarraituko dugu.

Horiek horrela, bizitza- eta lan-baldintzak hobetzeko tresna da gizarte-elkarrizketa; beraz, Eusko Jaurlaritzatik, hitz ematen dugu sindikatuekin eta enpresa-erakundeekin batera bilgune soziolaboralen organoen jarduerari buruzko hausnarketarako bidea irekiko dugula, organo horiek bultzatu eta biziberritzearen; eta, era berean, enplegu-maila handia sortzeko ekimen publiko eta pribatu guztiak bideratuko ditugu. Hori guztia lortzearen, honako jarduera hauek ditugu xede:

- Euskal Erakundeen eta ekonomia- eta gizarte-eragileen arteko, eta azken horien arteko elkarrizketa eta gizarte-ituna bultzatzea, Enplegurako Gizarte-ituna lortzearen.
- Estatuari eskatzea lan eta gizarte segurantzako ikuskaritza transferitzeko eta susta dezala, Euskal Autonomia Erkidegoak dituen eskumenen markoan, lan-ikuskaritzako araudia eta aplikazio eraginkorra garatzea.
- Lanaren banaketara bideratutako neurriak bultzatzea eta sustatzea, gizarte-itunaren organoko eta negoziazio kolektiboko berariazko esparruetako eragileen arteko gizarte-elkarrizketa suspertuz, eta dagozkion jarduerak sustatuz, honakoak lortzearen:
 - o Ordu estrak murriztea.
 - o Familia- eta lan-bizitza bateratzea, lanaldia murriztuz eta seniertatekoak zaintzeko eszedentziaren bidez.
 - o Errelebu kontratua bultzatzea, belaunaldien arteko elkartasun tresna gisa.
- Enpleguaren aldibaterakotasunari eta prekarietateari heltzea, mugagabeko eta kalitatezko kontratazioa eta aldi baterako kontratuak mugagabeak bihurtzen dituzten neurrien bidez.
- Lan-munduratzeko zailtasunak dituzten taldeen (emakumeak, epe luzeko langabetuak, elbarriak, etorkinak, baztertzeko arriskuan dauden gazteak) aldeko ekintza positiboak jasotzen dituzten neurriak garatzea.
- Elbarrientzako lan-kontratazioko erreserbak beteko direla bermatzea, bai enpresetan eta bai erakundeetan ere.

Azkenik, kontuan hartuta azpikontratazioa, gertakari konplexua berez, oso ohikoa dela jarduera pribatu eta publikoko sektoreetan, behar-beharrezkoa da horiek arautzerakoan nagusi izan behar diren bermei eta segurtasunari (juridiko-laborala eta soziala) buruzko hausnarketa egitea. Horrela, bada, kontratazio, negoziazio kolektibo eta enplegu alorrean eskumena duten erakundeek sustatu beharko dute EAEk dituen eskumenen markoan arlo hori arautzeko aukera. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak eragileen arteko hitzarmena bultzatuko du aipatutako eskumen-markoa arautzeko eta arlo horrek ekar ez dezan lan-arriskuen prebentzioaren murrizketarik eta lan-prekarietatearen gehikuntzarik.

2) Osasuna eta lan-segurtasuna

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok lehenetsi egiten dugu lan-istripuak murriztea. Gizarte- eta lan-kostu handia eragiten duen arazoa da, eta langileei eta beren familiei egoera izugarriak ere ekartzen dizkiete. Horregatik, beraz, osasunaren prebentziorako eta lan-segurtasunerako politikaren aldekoak gara, langileei nahikoa babes-maila bermatuko baitie.

Horretarako, beharrezkoa da prebentzioaren, kontzientziazioaren eta sentsibilizazioaren, prestakuntzaren esparruetan jardutea eta lan-prebentzioari buruzko araudia zorrotz betetzea. Horregatik, hitz ematen dugu honakoak egingo ditugula:

- Segurtasuneko eta Lan-osasuneko Gidaplana garatuko dugu, gaur egungo ezbehar kopurua murriztearren.
- Lan-segurtasunari buruzko Sentsibilizazio Plana sustatuko dugu ikastetxeetan eta lan-arriskuen prebentzioa Lanbide Heziketako ikasketa-planetan eta unibertsitateko zenbait ikasketetan sartzea bultzatuko dugu.
- Segurtasunaren eta Lan-osasunaren Euskal Behatokia sortuko dugu.
- Lan-giroaren kalitatea sustatzeko eta laneko jazarpena (mobbing) desagerrarazteko araudiak ezartzeko egokitasuna eta aukera aztertuko ditugu.
- Lan-gaixotasun berrien eta laneko jazarpen moralaren aurkako berariazko programak aplikatuko ditugu.
- Lantokietako lan-arriskuen prebentzioari buruzko aholkularitza eta kontrol Plana garatuko ditugu.
- Lan-osasunaren prebentzioaren kultura indartzen dituzten gizarte-akordioak bultzatuko ditugu, bai eta gaur egungo araudien kontrola eta zaintza ere, eta lan-arriskuen prebentzioaren esparruan sindikatuen eta enpresa-erakundeen artean hitzartutako ekimenak ere babestuko ditugu.
- Lan-Ikuskaritzaren eta Lanerako Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen – OSALAN- jarduerak indartuko ditugu prebentzioaren, prestakuntzaren eta segurtasunari buruzko araudiaren konplimenduaren esparruetan.
- Lan-arriskuen araudia betetzen ez dutenek herri administrazioarekin kontratuak egiteko duten debekua dela-eta, Herri administrazioetako kontratuei buruzko araudia betearazteko neurriak hartuko ditugu, kausa horretan dauden enpresei buruzko erregistro publikoen sistemen bidez.
- Langile autonomoentzako eta mikroenpresentzako berariazko prestakuntza eta prebentzioa indartuko ditugu.
- Prebentzio-ordezkarien zereginak indartuko ditugu, bai eta haien prestakuntza ere.

3) Osasun-zerbitzu doakoa, unibertsala eta kalitatezkoa

Bizitza-kalitatea eman eta aberastasuna, enplegua eta zientzia-garapena sortzen duen gizarte-kohesiorako osagaia da Osasun-publikoa.

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok sendotu egin nahi dugu euskal osasun-sistema, unibertsaltasunean, elkartasunean, justizian, berdintasunean, segurtasunean eta laguntza-kalitatean oinarritzen dena, herritarren osasun-eskubidea bermatzeko zeregina duena, eta helburu horretarako nahikoa eta egokia den finantziario publikoa duena.

Xede hori dugula, hitz ematen dugu honako ekintza hauek egingo ditugula:

- Osasun Plana garatuko dugu, eta zenbait gaixotasun tratatzeko diagnosi- eta terapia-teknika berriak ezarriko ditugu.
- Kirurgiako itxaron-zerrendetako batez besteko berandutzea murriztuko dugu, harik eta Europako estandarretara ekarri arte, eta kirurgia-prozeduretara sartzeko gehieneko epeak arautuko ditugu.
- Sare publikoaren ohe kopurua handituko dugu eta laguntzarako eta ospitaleetako azpiegiturak hobetuko ditugu; horretarako zenbait ekintza egingo dugu, besteak beste, Gernikan ospitale berria eraikiko dugu eta Arrasateko ospitalea handituko dugu, eskualde horietako osasun-eskaerari erantzutearren.
- Sendagaien kontsumoa dela-eta, lehentasuna emango diegu generikoei, kontsumoaren arrazionalizazioa hobetzearren eta farmazia-gastua murriztearren.
- Gaixoarentzako informazio-sistemak hobetuko ditugu, akutuentzako ospitaleen eta egonaldi ertain eta luzeko ospitaleen arteko koordinazio-sistemak hobetuko ditugu eta lehen arretako eta arreta espezialduko fakultatiboen arteko lankidetzak eskemak ezartzeko jarduera-programa eratuko dugu.
- Ingurumen-osasunaren esparruan prebentzio-plan berriak garatuko ditugu, eta kontsumoko uraren osasun-kalitatea kontrolatzeko Europako Sarean sartuko gara eta elikadura-segurtasuna areagotuko dugu.
- Farmazia- eta osasun-ikerkuntza bultzatu eta sustatuko dugu, Zientzia eta Teknologia Planaren barruan.
- Osasun-langileen lan-karrera hobetuko dugu, eta horretarako sendagileen eta erizainen lanbide-garapenerako eredu abiaraziko dugu eta horien lan-egonkortasuna sustatuko dugu. Halaber, Osakidetzako Euskalduntze-plana aplikatuko da, euskal herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzeko eta eskubide horiek orekatzeko osasun-langileen eskubideekin, betiere kontuan hartuta haien egoera pertsonalak zein lan-egoerak.
- Euskadiko osasuna aro digitalera egokituko dugu, eta horretarako garatuko dugu zenbait proiektu, adibidez, Osasun-txartel elektronikoa, Errezeta Elektronikoa, Informazio-sistema integratuak eta Euskadiko Osasun-sistemaren Ataria.

4) Gizarte-babesa guztientzat, bereziki babes gutxien dutenentzat

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdion helburuetako bat da ekonomia-hazkundera guztien aurrerabidea eta bizitza-kalitatea ekar dezala, eta, era berean, babes gutxien duten sektoreei babes eman diezaiela, betiere justizi, elkartasun eta gizarte-kohesioa direla irizpide.

Bazterketa eta marjinazioa oso arriskutsuak dira elkarbizitzarako eta uste dugu botere publikoek nahitaez hartu behar dutela esku gizartearen sektore handiak arrisku egoeretara bultzatzen dituzten fenomenoak finka ez daitezten. Azken buruan, guztiontzako Gobernuaren lortzea da xedea, baina batez ere gehien behar dutenentzat eta bizi-baldintza duinak eta egokiak eskuratzeko baliabide publikoen mende daudenentzat.

Hori dela-eta, honako koalizio-hitzarmena sinatu dugun alderdiok azpimarratu nahi dugu gure gizarte-politikaren izaera birbanatzailea eta solidarioa, gainerako politika publikoekin koordinatuta gauzatuko dena, eta bestalde, azpimarratu nahi dugu Europarekin bat egiteko bidean aurrera egin nahi dugula bai gizarte-gastuan eta bai euskal erakundeen mendeko gizarte-prestazio eta zerbitzuen garapenean ere.

Halaber, badakigu jakin gizarte-politika bakar bat ere ez dela aldaezina, izan ere, analisi- eta ebaluazio-prozesuen ondoren, etengabe egokitu behar dira politika horiek, eta horregatik, hitz ematen dugu onartu eta aplikatuko dugula familiaren eta gizarteratzearen esparruetako Gizarte-politikak Ebaluatzeko I. Plana. Plan horrek ebaluatzeko metodologia ezarri eta Gai Ekonomikoetarako Batzorde Ordezkararen koordinaziopean, ebaluatutako politiketarako neurri zuzentzaileak proposatuko ditu.

Gure gizarte-politikak babes gutxien duten taldeak lehenetsiko ditu, besteak beste gizarte-bazterketarako arriskua dutenak, mendekoak, guraso bakarreko familiak, babesik gabeko haur eta nerabeak, drogaren mendean daudenak eta etorkinak.

Hala bada, aurreko legegintzaldian Oinarrizko Errentaren zenbatekoa handitu egin zen, eta ia-ia lanbidearteko gutxieneko soldata (LGS) bestekoa da; ongizatearen euskal sistemaren sendotze bidean gertaera garrantzitsua izan zen hori. Aurreikusita dago zenbateko hori are gehiago handitzea 2006an, eta EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdion erronka da, batetik, oinarrizko errentaren zenbatekoa sendotu eta handitzea hurrengo legegintzaldian, lanbidearteko gutxieneko soldataren bilakaerari egokitzeko eta, bestetik, horren osagarri gisa, laguntzako eta aldi baterako diru laguntzei eustea ahalbidetuko duten beste diru-laguntza batzuk ezartzea.

Era berean, Gizarte-bazterketaren aurkako Legeak eta Gizarte-eskubideen Itunak osatzen duten lege-markoari buruzko hausnarketa, eta, hala badagokio, horren aldaketa proposatzen dugu, bi arauen helburua eta edukia berriro egokitzeko, oinarrizko errentaren unibertsalizazio progresibora jotzearen eta, bestalde, gizarte-bazterketaren aurkako politikaren aplikazio zorrotz eta arduratsua lortuta, gizarteratzeko mekanismoak, fiskalizazioa eta emaitzen ebaluazioa indartu daitezten.

Ildo beretik, EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok erakundeen arteko hausnarketa bultzatuko dugu, gizarte-bazterketaren aurkako politikari lotutako gizarte-prestazioetan armonizazioa eta berdintasuna lortu ahal izateko.

Horrenbestez, politika hori gauzatze aldera, alderdiek honako jarduerak hauek burutuko ditugu:

- Foru Aldundiekin eta EUDELekin batera, Gizarteratzeko Euskal Erakundearen arteko II. Plana (2006-2010) egingo dugu, diru-prestazioetarako (Oinarrizko Errenta eta Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak) eta laneratze eta gizarteratzeko eskubide bikoitzean oinarrituta, zeinaren helburua izango baita sektore ahulenak gizarteratzea eta lan-munduan sartzea, batez ere guraso bakarreko familiak eta gazteak.
- Lan-munduan sartuko ditugu oinarrizko errentaren onuradunak, eta horretarako enplegurako pizgarriak eta prestakuntza eta enplegu politika aktiboak sustatuko ditugu, eta Oinarrizko Errentaren eta Gizarte-larrialdietako Laguntzen onuradunen artean intserzio-hitzarmenetako harpidedun kopurua handituko dugu.
- AUZOLAN programa bultzatuko dugu, lan-jarduera komunitarioa eskaintzen duena, eta konbinatuko da oinarrizko errentaren sistemaren dauden sektoreetarako prestakuntza-prozesu batekin eta enplegurako banakako programa batekin.
- Lan-munduan sartzeko enpresak sortzeko ekimenak bultzatuko ditugu, bai eta horien funtzionamendua ere, babes gutxien duten sektoreak lan-munduan sartzeko lan aktiboa egiten baitute.

Bestalde, gizarte-babeserako politikak zaindu behar du pentsioak duinak eta egokiak izan daitezen, eta, pentsio-sistemak, batez ere Gizarte Segurantzaren erregimen publikoan oinarritzen denak, nahikoa estaldura eman diezaien oraingo eta geroko belaunaldiei. Helburu horretara bideratuta, EAJ-PNV, EA y EB-Berdeak alderdiok hitz ematen dugu:

- Gizarte Segurantzaren kudeaketa ekonomikoari dagokion transferentzia eskatuko diogula Estatuari, pentsioen sistema publikoari eustearren, oinarrizko eta funtsezkoa baita.
- Gizarte-aurreikuspen osagarrien sistema bultzatuko dugula. Horretarako, Gizarte-aurreikuspen osagarriaren Plana abiaraziko dugu, enpresaburu eta sindikatuen arteko akordioei lotutako enplegu-sistemak sustatuz. Borondatezko Gizarte-aurreikuspeneko Erakundearen Legea ere abiaraziko dugu, gizarte-aurreikuspena euskal gizarte osora zabaltzearen.

5) Gizarte-zerbitzuetako sistema bidezkoa eta eskubideak bermatzen dituen

EAJ-PNV, EA y EB-Berdeak alderdiok hitz ematen dugu, Foru Aldundiekin, Udalekin eta EUDELekin dagokion erakundearteko koordinazioa lagun, Gizarte-zerbitzuei buruzko Legea egokitzeari edo aldatzeari ekingo diogula, eskumenak egokitu, gizarte-zerbitzuen eta prestazioen katalogoa zehaztu, betiere arreta berezia eskainiz mendekotasunari, eta gizarte-zerbitzuen planifikazio estrategikoaren eta antolaketaren eredia ezartze aldera.

Era berean, lurraldeen arteko oreka lortzeko eta zerbitzuen kalitatea sustatzeko eta administrazio-bikoizketak ekiditeko, hitz ematen dugu gizarte-zerbitzuen euskal sarea antolatu eta planifikatuko duen Gizarte-zerbitzuen Estrategia-plana landuko dugula.

Horrez gain, oinarrizko gizarte-zerbitzuak indartuta, udal gizarte-zerbitzuen sarearen esparru funtzionala garatuko da, EUDELekin adostu ondoren eta erakunde horrekin lankidetzan. Hori lortzeko, EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiek esparru-akordio malgua eta udal errealitatera

egokitua bultzatuko dute gizarte gaietarako sailaren eta EUDELen artean, hala nahi duten udalei aukera emango diena laguntza hori jasotzeko.

Bestalde, honako jarduera hauek bultzatuko ditugu, bestek beste:

- Gizarte-ongizatearen Euskal Kontseilua indartzea, Gizarte-ongizateko gizarte-politiken kooperaziorako eta horien diseinurako organoa baita.
- Drogamendekotasunen V. Plana garatzea, osoko neurrien bidez, eskolaren, familiaren eta osasunaren esparruetan, arreta berezia eskainiz baztertzeko arriskuan daudenei, kontsumo handikoei, eta askatasunik gabe daudenei. Hori dela-eta, dagokion erakundearteko koordinazioa lagun, bi programa garatuko dira: bata, desabantailan dauden adingabe eta gazteei zuzenduta, eta, bestea, Euskadiko hiru espetxeetan prebentziorako, laguntzarako, eta kalteak murrizteko jardueretarako eta gizarteratzeko ibilbideetara bideratuta.
- Aplikatu daitezkeen lege-esparrua aintzat hartuta, sexu-orientazioagatiko eta genero-identitate gurutzuagatiko bazterketa ekiditeko neurriei -arauak eta bestelakoak- ekitea.
- Minusbalioetuen Arretarako eta Sustapenerako Erakundearteko Plana lantzea.
- Minusbalioetasuna dutenak Ohiko Lan-munduan Sartzeko Plana, 2004ko abenduaren 14an onartu zena, garatzea, eta lan-eskaintza publikoetan gero eta gehiago handitzea minusbalioetasuna dutenentzako plaza kopurua.
- Irisgarritasunaren Euskal Kontseilua garatzea eta indartzea.
- Minusbalioetuentzat egokitutako etxebizitzaren erreserba bultzatzea, sarbidea erraztuz, eta minusbalioetasun bakoitzaren beharretara egokitzuz.

Beste alde batetik, haurtzaroaren esparruari dagokionez, PNV-EAK, EA eta EB-Berdeak alderdiok Haurtzaroaren eta Nerabezaroaren Arretarako Legea garatuko dugu, eta xede horretara, honakoa bultzatuko dugu:

- Haurrak eta Nerabeak Defendatzeko Erakundea, mehatxu edo eskubide urraketak gertatzen direnerako defentsa-organo gisa.
- Haurtzaroaren eta Nerabezaroaren Behatokia sortzea, haurren eta nerabeen bizitza-baldintza ikertzeko eta horiei arreta eskaintzen dieten erakundeei aholkuak emateko organo gisa.
- Adopzio-prozedura eta nazioarteko adopzio-erakunde laguntzaileen akreditazioa eta funtzionamendua arautzea

Azkenik, EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok hitz ematen dugu legegintzaldi berriaren erdira iritsi aurretik Legebiltzarrerara bidaliko dugula Familia-bitartekaritzarako Lege-egitasmoa.

6) Etxebizitza denon eskura

Aurreko legegintzaldian Etxebizitza Bideratzeko Plana (2002-2005) aplikatu izanak izan du ondorioz: 19.000 etxebizitza babestu hasi dira eraikitzen, hutsik zeuden 2.000 etxebizitza alokairura bideratu dira eta beste 45.000 etxebizitza zaharberritzeko diru laguntzak eman dira.

Jarduera horiek lortu dute Euskadi Estatuko batez bestekoa baino hiru bider gorago egotea etxebizitza babestuen eraikuntzaren alorrean. Neurri horiek beharrezkoak dira, baina ez dira nahikoak, hala ere, etxebizitzaren alorrean dagoen defizit handia konpontzeko.

Horregatik, EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok lurzoruaren eta etxebizitzaren alorreko politika sakondu eta garatu nahi dugu, bai eta erantzun ere diru-sarreraren urriak dituzten herritarrek etxebizitza duina eta egokia edukitzeko duten eskubideari.

Horrela bada, lehenengo neurri gisa, hitz ematen dugu Gobernuaren eratu eta sei hilabeteko epean Legebiltzarrerara eramango dugula Lurzoruari buruzko Lege-proiektua, aurreko legegintzadiko Gobernu-Kontseiluak onartu zuen bera.

Era berean, EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok hitz ematen dugu legegintzaldi berriaren erdira iritsi baino lehen Etxebizitzari buruzko Lege-proiektua bidaliko dugula Legebiltzarrerara.

Etxebizitzaren arazoak Administrazio Publiko guztien lankidetzara eskatzen du, nor bere eskumenak baliatuta eta norberaren jarduerara-esparrutik betiere. Horrela izanik, EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok hitz ematen dugu dagozkion jarduerak sustatuko ditugula, eta, hala badagokio, euskal erakunde publikoen ekimenen osagarritasuna eta koordinazioa ere bai.

Era berean, honako ekintza hauek bultzatuko ditugu:

- Etxebizitzari buruzko Gidaplan berria (2006-2009) onartzea. Gidaplanaren helburu nagusiak izango dira babestutako eskaintza handitzea aurreko planeko kopurua gainditzeko, gizarte-etxebizitzak eta alokairuko etxebizitza babestuak merkaturatzeko politikak areagotzea, aurreko planean baino etxebizitza huts gehiago mobilizatzea, etxebizitzaren zaharberritzea, arkitektura bioklimatikoa eta energia-eraginkortasuna bultzatzea eta babestutako etxebizitzaren inguruko iruzurraren aurka borrokatzea.
- Hutsik dauden etxebizitzak mobilizatzeako programak areago garatzearen, berariazko sozietate publikoa sortzea (Bizigune).
- Eraikinen Ikuskaritza Teknikoen Sistema ezartzea, Udalekin eta Lanbide-elkargoekin lankidetzan.
- Iraunkortasun kontzeptua sartzea etxebizitza publikoen eraikuntzan. Horretarako, arkitektura bioklimatikoa, egoitza-garapen berrien energia-eraginkortasuna eta hirigintza iraunkorra sustatzeko neurriak abiaraziko dira.
- Gazteei eta zaharrei apartamentuak eskaintzeko Plan berezia bultzatzea.
- Endekatutako inguruneak biziberritzeko eta bultzatzeko jarduerekin jarraitzea, eta, bereziki, inguru horietan oraindik konpondu gabe dauden etxebizitzak zaharberritzea. Hala bada, Sestaon, Bilbo Zaharrean eta Galindon abiarazitako jarduerak bukatu eta, hala badagokio, birraloizatzeko egin behar diren jarduerari ekitea

- Eraikuntza-sektoreko enpresen artean kalitate, iraunkortasun eta lan-segurtasuneko osoko sistemak sustatzea.
- Euskadiko Hiri Jabegoaren Ganbarak likidatzeko prozesua ireki eta ixtea, betiere hiri-lursailen jabeek elkartzeko duten askatasuna eta korporazio horietako langileei aitortutako eskubideak babestuko direla.

Azkenik, badakigunez eraikuntza-sektoreak zein garrantzi handia duen euskal ekonomia eta gizartean, EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok, Eusko Jaurlaritza medio, sektoreak industrializatzeko dituen aukerei eta ekoizpen-segmentu horri Clusterrak aplikatzeari buruzko hausnarketa bultzatuko dugu, betiere arlo honetan Eusko Jaurlaritzak ezartzen duenarekin bat etorrita.

7) Gure zaharren bizitza-kalitatea

Euskadi munduko aurreneko tokietan da bizi-itxaropenari dagokionez. Errealitate horrek euskal gizartearen giza garapenaren indizea erakusten du. Populazioa zahartzeak eskatzen du egoera honi ekitea gizarte-, osasun-, kultura- eta ekonomia-ikuspegitik.

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok uste dugu zaharrei arreta egokia eskaintzea dela ongizate-gizartearen zutabeetako bat. Horregatik, hain zuzen, gure gizarte-politikaren ardatz nagusietariko bat da zaharren ongizatea eta eskubideen bermea. Halaber, minusbalotasun fisiko edota psikikoak dituzten mendekoak ere lehenetsi beharrekoak dira, eta ekintza positiboko neurriak hartu behar dira zeregin horretarako.

Babes urria duten talde hauen beharrei erantzutearren, honako koalizio-hitzarmena sinatzen dugunok hitz ematen dugu ondorengoak egingo ditugula:

- Mendekoei arreta emateko Erakundearteko Plana lantzea.
- Mendekoak zaintzen dituztenei laguntza, prestakuntza eta arreta ematera bideratutako zerbitzu publikoak bultzatzea.
- Gerontologia-plana aplikatzearren, Etxeko Laguntzako Zerbitzua hobetzea eta zabaltzea, Foru Aldundiekin eta oinarrizko gizarte-zerbitzuekin lankidetzan.
- Prebentzio eta laguntza izaerako berariazko osasun-programak bultzatzea batez ere zaharrei eragiten dizkieten gaixotasunetarako.
- Arreta Soziosanitarioko Estrategia-plana (2005-2008), 2005eko apirilaren 6an onartu zuena Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak, garatzea eta ezartzea.

8) Familiari arreta

Familia, era batekoa edo bestekoa dela ere, gure erkidegoaren gizarte-egituraren oinarrietako bat dugu. VIII. Legegintzaldi honetako helburu behinetako bat da familiaren sustapenerako politikak garatzea eta horiek gero eta gehiago, progresiboki, egokitzea Europako gure inguruko herrialdeetara.

Esparrua hori izanik, EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok hitz ematen dugu arlo horretan osoko politika ezarriko dugula, Familiaren II. Planari estaldura emango dion Familiari Laguntza Emateko Lege-proiektuaren bidez. Lege-proiektu horren lehentasunen artean izango dira guraso bakarreko familiei babesa emateko neurriak, bai eta laguntza-ildo berriak ezartzea lehen (errentaren arabera), bigarren eta hirugarren seme-alabaren arabera. Horrez gain, arreta berezia eskainiko die kide ugariako familiei, diskriminazio positiboko programen bidez.

Orobat, aipatutako Planaren esparruan, xede horretarako organo batek kudeatuta, besteak beste, honako jardura hauek garatuko dira:

- Lan- eta familia-bizitza bateratzeko neurriak zabaltzea (arreta berezia mendekoei eta 2 urtetik beherakoei) eta horien aplikazioa langile autonomoei zabaltzea.
- Mendekoak dituzten eta baztertzeko arriskua duten familiei laguntzeko berariazko programak ezartzea.
- 0-3 urte bitarteko haur-hezkuntzako zerbitzua zabaltzea, Haurreskolak partzuergoak dituen plaza kopurua handituz, eta udal-sarea edo sare pribatuan integratuta ez daudenekin hitzarmena eginez.

9) Migrazio-politika bidezkoa eta aurrerakoa

Inmigrazio-politika bideratu egin behar da etorkinen gizarte- eta kultura-integrazioa lortzera, betiere haien eskubide eta betekizunak bermatuta.

Xede horretarako, nahitaezkoa da indarrean dagoen Inmigrazioko Euskal Plana garatzea. Plan horrek bere baitan biltzen ditu sektore anitzetako hainbat neurri gizarte, osasun, kultura, etxebizitza eta enplegu esparruetakoak.

Helburu hori lortzeko, EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok honako ekintza hauek planteatzen ditugu, besteak beste:

- Etorkinak hartzeko udal sarea indartzea, oinarrizko gizarte-zerbitzuetako langileei prestakuntza emanez.
- HELDU, etorkinentzako lege-arretako zerbitzua, bultzatzea, kalitatezko zerbitzu publikoa eskainiz.
- Euskadiko portu eta aireportuetan diren asilo-eskaerei erantzuteko jardura-protokoloa ezartzea.
- Etorkinen administrazio- eta lan-egoera arautzeko bidea jartzea. Pertsona horien eta bere duintasunaren alde jokatzuz.

- Honako legegintzaldi honetan onartzea etorkinek Euskadin dituzten eskubide eta betekizunen eta bizikidetzaren aldeko oinarritzko legea.
- Inmigrazioaren Euskal Behatokia bultzatzea, eta inmigrazioa ezagutzeko eta baloratzeko organo gisa sektore-politika honen kudeaketa-sailean kokatu.
- Etorkinen ezkutuko lanaren eta lan-esplotazioaren aurka borrokatzea, etorkinek enpleguaren aurrean duten berdintasuna bermatzeko neurrien bidez.
- Ikasle etorkinen Eskolaratze-programa garatzea, betiere ikasle horien hezkuntza-beharretara egokituta eta ikasleen gizarte-, kultura-, hezkuntza- eta hizkuntza-integrazioa lortzera bideratuta, eta aldi berean ekidingo da etorkinak pilatzea ikastetxe jakin batzuetan.
- Inmigrazioko Udal Planak sustatzea
- Honako legegintzaldi honetan Inmigrazioari buruzko II. Plana lantzea, indarrean dagoen Planeko neurrietan sakonduz eta horiek zabalduz.

III.- HAZKUNDEA ETA ONGIZATEA SUSTATZEKO GOBERNUA

Aurreko legegintzaldian euskal ekonomiaren Barne Produktu Gordina (BPG) urteko %2,5 hazi da, hots, Europakoaren halako bi; gure historia osoan izan dugun laguneko Barne Produktu Gordinik altuenera iritsi gara 2004. urtean.

Dena den, oraingo legegintzaldirako Gobernu osatzeko ardura dugun aldetik, EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdion iritziz, hazkuntza iraunkorraren bidetik aurrera egiteko industria- ehunaren lehiakortasuna sustatzen segitu behar dugu, enpresa berriak sortzearen alde jardunez, enpresari ertain eta txikiak bultzatuz, ekonomia soziala indartuz, teknologiaren, berrikuntzaren eta kalitatearen aldeko apustuan, informazioaren gizarte berria sustatuz, azpiegiturak hobetuz, turismo sektorea garatuz, tokian tokiko merkataritza sostengatuz, lehen sektorea eta landa-mundua indartuz, gure enpresen internalizazioa lagunduz eta, kontsumitzaile diren aldetik, herritarren eskubideen defentsan arituz.

1) Gure industria-ehunaren lehiakortasuna

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok industria lehiakor eta iraunkorraren alde gaude, gizarte, ekonomia eta ingurugiroen alorretik. Horretarako, enpresa berrien sorrera, tamaina eraginkorrak eta efikazak bilatzeko lankidetzak, ikerkuntza, garapen eta berrikuntza, giza baliabideen trebakuntza eta kudeaketaren eta produktuen kalitatea sustatzen lagunduko duten baldintzak sortu behar dira. Era berean gainera, euskal industriaren ekoizpen-egitura dibertsifikatu beharra dago, behetik gora datozen sektoreei (ingurugiroa, energia, laneko segurtasun eta higiena, etab.) zor zaien lehentasuna aitortuz. Dibertsifikatze horretan, Unibertsitatearen ekarpenak sekulako eginkizuna bete beharko du, ekoizpen-sektoreetara ezagutza hedaraziko baitu.

Horrenbestez, enpresen lehiakortasuna sustatzeari derrigorrezko deritzogu, oro har, hori baita horien hazkundera eta garapenaren funtsezko faktorea. Hori dela eta, hona gure konpromisoa:

- Enpresa-garapenaren aldeko politikak zabaltzea, enpresa ertain eta txikiei dagokienez, bereziki. Horretarako, garapen zientifiko eta teknologikoak ezartzen dizkigun erronkei eutsi egingo diegu.
- Industri politikaren planifikazio prozesuan aurrerapausoak ematea, horren diseinu eta exekuzioan sindikatu eta patronaleko erakundeekin batera parte hartuz.
- Lehiakortasuna sustatzea jomuga izango duen berriarazko bulego edo behategia sortzea; honek, egun martxan dauden cluster eta taldeekin elkarlanean jardunez, tokian tokiko taldeak eratu eta beraiekin elkarlanean aritzeaz gainera, hala nahi duten enpresei, prozesu horiek bultzatzeko aholkularitza teknikoa eta sostengu-lanabesak eskaintzea izango du helburu.

- Lehenetasun estrategiko berrien zerbitzutarako parte hartze industrialak mobilizatzeko estrategia garatzea.
- Industria eta teknologiarako ez ezik, logistika eta azpiegiturak ezartzeko ere lurzoru gehiago eskaintzea.
- Enpresaren inbertsioa finantza-aldetik sostengatzea, euskal industria ezagutza eta berrikuntza teknologiko intentsiboan diharduten sektoreetarantz dibertsifika dadin.

2) Enpresa berriak sortu eta enpresa ertain eta txikiak sostengatzea

Industria-politika eraginkorra izango bada, enpresa ertain eta txikiaren aldeko apustua egin beharra dago, argi eta garbi: ekimen-izpiritua islatzen dutenak enpresa mota horietatik direnez, horrelako enpresen dinamismoa sostengatu eta bermatzeak biziki bultzatuko du ekonomia osoaren berpiztea.

Ondorioz, gizarte osoa blaituko duen ekimen-kultura sustatu nahi dugu: ingurunearekin konpromisoa hartu eta sare-moduan antolatutako enpresa-oinarri sendoa sortzea da kontua, horiek berrikuntzaren alde eta nazioartean euskal ekonomia hedatzearen alde diharduten heinean.

Hori dela-eta, hona hemen gure konpromisoa:

- Euskal ekonomiaren jarduera ekintzailea sustatzea, berrikuntza- eta enpresa-zentroetako jarduera sendotuz, hezkuntza alorrean ekimen-kulturarako prestakuntza-sistemak ezarriz eta enpresaria edo pertsona saiatu eta ekintzailea gizartean aintzat hartua izan dadin bultzatuz.
- Balio erantsiko enpresen sorreran euskal emakumearen potentzialaren alde jardutea, berdintasun handiagoko gizarte integratzailea moldatzeko.
- Eskualde zigortuenen sustapen ekonomikoa areagotzea, euskal Herri Administrazioek elkarlanean jardun dezaten ahaleginduz.
- Enpresen deslokalizazioari aurre egiteko ekimenak bultzatzea.
- Enpresa-sorrerarako programak garatzea, Euskadin dauden enpresen kopuru zehatza ugaltzeko.
- Arrakastatsu gertatu diren ikaskuntza eta eskarmentuak trukatzeko nazioarteko proiektuetan —EURBEST, EURADA eta antzekoetan, adibidez— Euskadiren agerpena areagotzea.

3) Gizarte-ekonomiaren bulkada

Erabaki estrategikoetan langileen esku hartzeari dagokionez, ekonomia sozialeko euskal enpresak —kooperatibak eta elkarte anonimo laboralak— erreferente nabarmenak dira.

Horrenbestez, EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok gizarte-ekonomiako euskal enpresak laguntzea proposatzen dugu, hurrengo ekimenen bitartez:

- Auto-enplegua zabaltzeko eta eskualdean eskualdeko garapena sustatzeko formula egokia den aldetik, ekonomia sozialeko enpresa berrien sorrera bultzatzea.
- Lan elkartuko kooperatiben eta euskal elkarte anonimo laboralen elkarlana sustatzea.
- Parte hartzearen kultura sustatu eta babestea, eta enpresen erabakietan langileen esku hartzea bultzatzea, kalitateko enplegua ugaltzeko lanabes diren aldetik.
- Kooperatiben Kontseilu Sozialaren eskumenak indartzea eta, oro har, kooperatiba-mugimenduaren garapena sustatzea.

4) Teknologia, berrikuntza eta kalitatea

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdion iritziz, ikerkuntza, garapen teknologikoa eta berrikuntza, ezagutza sortu eta aplikatzeko mekanismo eraginkorrak dira eta, hortaz, Euskadiren aurrerakuntza ekonomikoaren eta bertako herritarren aurrerakuntza kultural eta intelektualaren aurrerakuntza laguntzen dute.

Ondorioz, erabateko kalitatearen printzipioak euskailu harturiko gestio aurreratuaren eredia erakunde publiko eta pribatu guztietara zabaltzearen alde gaude, horixe baita lehiakortasunaren elementu estrategikoetako bat. Hori dela eta, hauxe da gure konpromisoa:

- Bikaintasun eta erabateko teknologia-eskaintza osatzea, Euskal Teknologiaren Sareko agenteen arteko elkarlan publiko eta pribatuaz eta espezializazioaz baliatuz.
- Izaera zientifiko eta teknologikoko enpresak jaurtitzeko proiektuak lehentasunez laguntzea eta industria-enpresetan berrikuntzan jarduteko ahaleginak bultzatzea.
- Europak duen mailatik geroz eta gertuago koka gaitzen, ikerkuntza, garapen eta berrikuntza alorrean ahaleginetan jardutea, enpresa ehunean erabateko kalitateko programak indartuz eta hainbat esparrutako esfortzuak areagotuz, hala nola unibertsitateko oinarriko ikerkuntzarako fondoak, populazio aktiboarekiko ikertzaile-ratioa, euskal enpresa eta ikertzaile bakoitzeko patente erregistraturen kopurua eta izaera teknologikoko esportazioen bolumena.
- 2005-2008 Zientzia, Teknologia eta Gizarte Plana garatzea, alor berria den aldetik, nanozientziak sustatuz (Nanobask 2015).
- Unibertsitateko ezagutza enpresetara eroatea eta izaera teknologikoko enpresetako unibertsitate-tituludunek sormen lana sustatzea helburu duten politikak garatzea.
- Ikertzaileak prestatzen eta atzematen laguntzea.
- Euskal sistema zientifiko eta teknologikoa indarberritzea ahalbidetuko duen azpiegitura zientifiko-teknologiko berriaren sorrera bultzatzea.
- Nerbioi Ezkerraldean dagoen Meatzaldeko Parke Teknologikoa eraikitzen hastea, Bizkaiko Foru Diputazioarekin lankidetzaz.

- Izaera handi-handiko proiektuei ekitea ahalbidetuko duen biologia estrukturalan ikerkuntzan jarduteko zentro zientifiko-teknologikoa sortzea, CIC BIOGUNE eta Euskal Herriko Unibertsitateak lankidetzan koordinaturik.

5) Informazioaren gizarte berria

Informazioaren gizarte berria herritarraren askatasuna eta parte hartzea bideratzen duen espazioa den arren, gizakien eta lurraldeen arteko bereizketa-harresia —“bretxa digitala” izenekoa— gertatzeko arriskua du bere baitan.

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdion iritziz, informazioaren teknologia berrien hedapenaren alde segitu beharra dago, diskriminazio sozialaren mehatxurik gerta ez dadin eta, era berean, ezagutza alorrean behetik gora datozen sektore berriak sustatzeko.

Hori dela eta, hona gure konpromisoa:

- Estatu espainolari dagokionez, informazioaren teknologien erabileran Euskadik agertzen duen aitzindaritza sendotu eta finkatzea, eta interneteko erabiltzaile-indizea Europako batez bestekoaren gainetik ezartzea.
- Informazioaren gizartearen sustatzeko tokian tokiko gobernuen nazioarteko foroaren garapenean aitzindari izatea.
- Arau-marko argi eta egonkor baten bitartez, informazioaren gizartearen garapena bultzatzea.
- “Banda zabaleko azpiegiturak hedatzeko plana” garatzea, hurrengo legegintzaldian euskal udalerrri guztiek teknologia hauxe erabili ahal izan dezaten.
- Unibertsitate mailako irakaskuntza eta ikerkuntzaren euskailu gisa, informazioaren eta ezagutzaren teknologia berrien sarrera onestea, unibertsitatean tic teknologiek duten eragin biderkatzailea aintzat hartuta.
- Mugikortasuna, estaldura handia eta banda zabala ahalbidetuko duten teknologia berrien sarrera erraztea.
- Teknologia berriak erabiltzearen mesedetan, biztanleriaren baitan aldakuntza kulturala erraztuko duten politikak sustatzea, TIK izenekoan eta alfabetatze digitalaren hedakuntza bultzatuz, horrelako baliabideak eskuratzeko eragozpen handienak dituzten kolektiboetan.

6) Azpiegituren hobekuntza

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdion iritziz, bertoko garraio eta komunikazio egiturak bultzatu beharra dago, europar ardatz atlantikoan Euskadik duen posizio estrategikoa sendotzeko.

Era berean, garraio alorrean, iraunkortasuneko irizpidedun azpiegitura-politikak garatzearen alde gaude. Errepide-, trenbide- eta portu-azpiegituretako jarduerak, dena den, Garapen Iraunkorreko

Ingurugiroaren Euskal Estrategian, Ingurugiro Programa-Markoan, Garraio Plan Zuzentzailean aurreikusitako baldintzen arabera gauzatuko dira, ingurugiro alorreko legeria zorrotz betetzeko.

Adiera horretan, EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok, bai merkantziak, bai bidaiariak eramateko, garraio-bide alternatibo gisa tren-sistema bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu, errepideko trafikoaren zati bat trenbidera igaro dadin; era horretan garraioaren eta iraunkortasun-irizpideen arabera, europar Liburu Zuriak xedatutakoa betetzen lagun dezagun, Kiotoko Protokoloari dagokion alderdian, batik bat.

Ibilbide luzeko trenbide-sareari dagokionez, Europarekin eta Penintsulako gainerako herrialdeekin lotuko gaituen eta garraio iraunkorraren premia beteko duen euskal trenbide-sarearen sorrera lehenesteko konpromisoa hartzen dugu, trafikoa (merkantziarena, bereziki) errepidetik trenbidera igartzeko, 2003 urtean onetsitako Garraio Iraunkorraren Plan Zuzentzailearen arabera. Prestazio handiak dituen trenbide-sare horrek hurrengo ezaugarriak izango ditu, hainbat alorretako galdekizun teknikoei erantzuteko:

1. Gasteiz – Dax europar katearen baitako sarea.
2. Bidaiari eta merkantzien (edukiontzia barne) trafikoa eroateko sarea.
3. Gehieneko abiadura operatiboa 220 - 230 km. orduko izango da.
4. Bilboko Portuarekin zuzenean konektatuko du.
5. Aintzat hartuko da, tarteko hiriburu eta lotuneetan, bidaiarientzako geltokietan intermodalitate egokia ezartzea.

Prestazio handiak izango dituen trenbide-sare berria, indarrean dagoen legeriaren arabera, ingurugiro alorreko zorroztasunean oin hartuta eratuko da, landa-ingurunean inpaktua eta erasoak minimizatuz eta, azpiegiturak zeharkatzen duen herrialdearen arabera, bertako paisaia zein ingurugiroan egokiro integratzea helburu hartuta, horretarako berariaz sorturiko Sailarteko Jarraipen Batzordeak sustatuz.

Proiektu- eta obra-faseetan ez ezik, etorkizunean ere, lanak amaitutakoan, sare berri hori osorik kudeatu eta ustiatzea izango du helburu Euskal Administrazioak. Gauzak horrela, sare berri horren funtzionaltasuna hobetzeko, ingurunean hobeki integratzeko edo adierazitako helburuak egokiro betetzeko, ibilbideari egin beharko litzaizkiokkeen egokitzapenak egiteko konpromisoa hartzen dugu EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok, beti ere operatibotasunaren epe-muga 2010 urtean ezarrita.

Horrez gainera, hurrengoak ere egingo dira:

- Hurrengo hiriko eta hiriarteko tranbiak: Gasteizkoa, Donostiakoa, Leioako Unibertsitate eta Urbinagaren artekoa, Bergara, Arrasate eta Aretxabaletaren artekoa; baita Zumaia eta Azpeitiaren arteko trenbidea berreskuratzea ere.
- Bilboko metroaren 1 Linea zabaltzea, Etxebarri eta Basauriren arteko lotuneak eraikiz; Bilboko metroaren 2 Linearen eraikuntza burutzeko, Sestao, Portugalete eta Santurtziren arteko bideak eraikiz; 3 Linea eraikitzea, Etxebarri, Otxarkoaga, Txurdinaga, Zurbaranbarri, Uribarri eta Alde Zaharraren arteko lotuneak sortuz.
- Euskadiko Garraioaren Agintari Bakarra sortu eta, honen menpean, aurreikusitako dauden Herrialdeetako Agintariak sortzea, lurralde guztietan erabilgaitzak baliatuko dituzten ordainbide denak era berdinean tratatuak izan daitezkeen beharrezkoak diren urratsak emanez.

-
- Pasaia eta Bilboko Portuen garapen eta modernizazioa integrazio, iraunkortasun eta elkar osagarritasunaren ikuspegitik bultzatzea. Horretarako, EAE eta Estatu espainiarraren eskuduntzak zein diren kontuan izaki eta interes orokorreko portuen (Pasaia Portuarena, bereziki) kudeaketa-transferentzia errebindikatzen jarraitzea gorabehera, ingurunea errespetatuko duen portu-jarduera (erradioaktibitatea kontrolatzeko instalazioa, inpaktu akustikoa arintzeko neurriak, gai kutsatzaileen igorpena eragozten duten zama-sistemak, etc.) bermatuko duen Plana era dadin eskatuko da, Pasaialdeko Erakundearen arteko Batzordearen baitan, alde hori suspertzeko jomugaz sortuko den elkarte kudeatzailean EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiek izango duten orekazko partaidetzari esker. Kontua da egungo porturik bereizi eta bestelako jarduera ekonomikoetara bideratzeko espazioak eta badia bera erabat suspertzeko konpromisoa hartzea, eragindako herritarren bizi-kalitatea hobetzeko.
 - Euskal Portu Sisteman egin beharreko Inbertsioen Plana garatzea, Mutriku, Orio eta Bermeoko portuetako lanei, Bilboko kruzeroen moilaren egokitzapenari eta Ondarroako portuak premiazkoak dituen azpiegiturak sortzeko lanak amaituz.
 - Euskadiko Portuen Legea eta Euskadiko Portuen Sektoreko Lurralde-Plana egitea, portuen antolamendu eta kudeaketa modernoa sustatzeko, honek, bere aldetik, portu-sisteman lehiakortasuna eta kostaldeko udalerrien garapen endogeno iraunkorra hobetzen lagun dezan.
 - Bilbo eta Pasaia interes orokorreko portuen kudeaketan ez ezik, Bilboko (Loiu), Gasteizko (Foronda) eta Donostiako (Hondarribia) aireportuen gestioan ere partehartze handiagoa sustatzea.
 - Foru Diputazioekin elkarlanean, Azpiegituren Planaren eta Errepideen Plan Orokorren markoan, hurrengo bideen eraikuntzan parte hartzea:
 - o Gasteiz-Eibar autopista.
 - o Araban, N-1 errepideko Errege-Legoarako sarbideak.
 - o Basauri-Zaratamo eta Arrigorriagaren artean, A-8 eta A-68 autopisten lotunea.
 - o Gurutzetako aldabidea.
 - Eusko Tren XXI Plan Estrategikoa garatzea, hurrengo jarduerak gauzatzuz:
 - o Donostialdean “Topo” trena hiri-garraiorako tren-sistema integral bihurtzea.
 - o Txorierrri eskualderako eta Loiuko aireporturako trenezko sarbide berriak.
 - o Zumaia eta Azpeitiaren arteko trenbidea berreskuratzea.
 - o Durangaldeko tren-korridorean inbertsioak eta hobekuntzak egiten segitzea.
 - o Eibarko “Electrociclos” izeneko tokian tren-pasabidea kendu eta Ardantzako geltokia eraberritzea.
 - Hegoaldeko tren-saihesbidearen eraikuntza bultzatzea, Bilboko Portua eta Europako estatu espainiarreko eta eskualdeko sareak egokiro lotu ahal izateko.
 - Meteorologiaren Euskal Legea egin eta Klimaren Euskal Fundazioa sortzea.
-

7) Turismo-sektorearen garapena

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdion aburuz, Euskadi nazioarteko turismo-erreferentziazat indartu beharra dago, geure Herri-Marka sustatuz.

Horretarako, dinamiko, teknologikoki aurreratu eta berritzailea izateaz gainera, bisitariei osoko zerbitzua eskaini ahal izango dien turismo-sektorearen sorrera bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu, hurrengo jarduerak gorpuztuz:

- Informazio turistikoa eskaintzeaz gainera, enpresa-sektorearen merkaturatzeko plataforma izango den turismo atari berria martxan jartzea.
- Hainbat merkatutan sustapenezko egintzat gauzatuz, Euskadi helmuga izango duen turismoaren bulkada indartzea.
- Turismo-enpresa berriak egiaztaturiko kalitate-sisteman sartzea.
- Euskadin turismoa sustatzeko Agentzia martxan jartzea.
- Elkarlana oinarri harturik, euskal turismoaren lehiakortasuna hobetzeko lanabes izango den heinean, Turismoko Cluster Elkarteak sortzea.
- “Hiriko turismoan” eta “bilera eta kongresuen turismoan” egun dugun posizioa hobetzea.
- Turismo-segmentu berriak garatzea, hala nola Naturako Turismoa, Enoturismoa edota Kruzero-Turismoa.

8) Tokian tokiko merkataritza

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdion ustez, merkataritza txikiaren eta hirietako merkataritzaren osoko garapenaren aldeko apustuari eutsi behar diogu, enpresa komertzial handi eta txikien arteko oreka bermatuz, merkatarien eta hiritarren interesak betetzeko.

Hori dela eta, hona gure konpromisoa:

- Hiriguneetan merkataritza garatzeko planak bultzatzea, zigortutako alderdietan eta gune historikoetan duten aplikagarritasuna bereziki azpimarratuz.
- Merkataritza txikien arteko asoziazionismoa bultzatzea, merkataritzazko egiturak modernizatzeko eta sektoreko interes orokorren defentsa errazteko.
- Udalerritxo txikietako eta biztanle-dentsitate apaleko areetan merkataritzaren iraunkortasuna hobetzea helmuga izango duen programa garatzea.
- Euskadiko Banaketaren Behatokia sortzea, sektorearen jarraipena eta balizko bilakaera ahalbidetzeko.
- Prestakuntzaren bitartez, merkataritza tradizionalaren profesionalizazioa bultzatzea.

- Behetik gora datozen merkataritza-sektoreen (moda, udal-logistika, merkataritza elektronikoa, etc.) garapena laguntzea eta teknologia berrien aplikazioa sustatzea.
- Merkataritza-jarduera erregulatzen duen arauteria gaurkotzea, sektorearen eraldaketa azkarrari eta merkataritza-formula berriei egokitzuz.

9) Lehen sektorea eta landa-munduaren garapena

Gure Herrian sektore ekonomiko tradizionala izateaz gainera, beste hainbat funtzio ere betetzen ditu nekazaritza eta abeltzaintza munduak: kalitatezko produktuen hornitzaile eta baserri-munduan populazioa mantentzeko bermatzaile izateaz gainera, natur ingurunearen eta fauna eta floraren aniztasun biologikoaren babesle ere bada.

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok, baserri-giro eta arrantzale-tokien errespetuzko garapen integral eta iraunkorrera bideratuko ditugu geure lanak, bertako herritarrei hiri-munduak gozaten dituenen antzeko zerbitzuak eskura ezarri. Elikadura eta nekazaritza alorreko gure politika produkzio- eta transformazio-egituren modernizazioan eta belaunaldi berrietako gazteak sektore horretan sartzean oinarrituko da.

Hori dela eta, hurrengoak egiteko konpromisoa hartzen dugu:

- Euskadiko Nekazaritza- eta Elikadura-Politikaren Legea onestea, nekazaritzarako lurraren defentsa, nekazal praktika onak eta kalitatea, eta nekazaritzaren iraupena segurtatuko duten gazteak sektore honetan sartuko direla bermatzeko.
- Baserri-munduan emakumearen protagonismoa bultzatzeko ez ezik, ustiatzearen jabekidetasuna eta emakumeak sektorean beteriko eginkizuna ere aintzat hartuko dituen egintza positiboko plana onartzea.
- Nekazarien errentak bermatuko dituzten Nekazal Aseguruen Plana onestea, egungo kalteen ordainen bidezko sistema hau pixkanaka ordezka dezan.
- Arrantza-produktuen markak eta kalitateko labelak sustatzea.
- 2007-2012 Nekazaritza Garatzeko Plan Iraunkor berria onestea (PDR), nekazari gazteak bultzatzeko, nekazaritza-lurra defendatzeko eta kalitatezko produktuak sustatzeko.
- Arrantza sektorearen etorkizuneko premiak eta problematika aintzat hartuko dituen Plan Estrategikoa onestea, ekonomiaren globalizazioaren eta baliabide biologikoen kudeaketaren iraunkortasunaren testuinguruan.
- Arrantza-ontzi eta portuen modernizazioa sustatzea.
- Jarduera ekonomikoen garapenean, arrantzale-udalerriei laguntzea.
- Kate trofikoaren kalitatea bermatzeko eta gizakien gaixotasunak prebenitzeko berariazko programak lehenestea.

10) Gure enpresak nazioarteko bihurtzea

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdion iritziz, euskal enpresen nazioarte-izaeraren garapena ez ezik, kanpoaldearekiko gure harreman ekonomiko eta komertzialen anizte geografiko eta sektoriala bultzatu beharra dago.

Hori dela-eta, horra hor gure konpromisoa:

- Kanpoaldean gure erakundeen presentzia iraunkorra finkatu eta areagotzea, ordezkaritza komertzialeko bulegoak eta delegazio berriak zabalduz.
- Euskal enpresen nazioarteko lehiakortasuna bultzatuko duen “Herri-Marka” garatzea.
- Kanpoaldean euskal enpresen ezarpena ezagutzaz eta finantza-laguntzaz sostengatzea.
- Kanpoaldean ezarritako enpresak finkatzea eta beren merkatuen dibertsifikazioa laguntzea.
- Euskal enpresak nazioarteko merkatuetan sar daitezen laguntzea, kanpoaldean agenteak etengabe eta aktiboki bilatuz.
- Euskal enpresen nazioartekotze-prozesuari laguntzeko sostengu-sare instituzionala sortzea (Intersarea).
- Kanpo-merkataritzan espezialista izateko gazteak prestatzea, gure enpresa eta erakundeak nazioarteko profilaz hornituko baitituzte pertsona horiek.
- Euskal enpresek beren enpresa-estrategia definitzean nazioarteko izaera integra dezaten lortzeko programak garatzea.
- Gure gizartearen ongizatearekin konpromisoa hartuak dauden arren, nazioartean ere presentzia sendoa duten euskal taldeen sorrera sustatzea.
- Garapen-potentzial garaia duten herrialdeetan euskal presentzia indartzea

11) Kontsumitzailearen eskubideen defentsa

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdion iritziz, kontsumo-politikaren helburua kontsumitzailearen eskubideak babestea eta herritarrengan kontsumo kritiko eta arduratsua sustatzea izango da. Ondorioz, alor honetan gauzatu beharreko jardueraren ardatz gisa, pertsona kontsumitzailea babesten duen arautegia bete dadin, Administrazioak bere kontratuak pertsona kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideekin konpromisoa harturiko enpresa arduratsuekin egin ditzan, kontsumo-ikuskaritza prebentzio eta informazio ikuspegiz zabal dadin eta, bidezkoa denean, praktika okerrak gauzatzearren, isunak aplikatu daitezkeen exijitzeko konpromisoa hartzen dugu, era horretan enpresek auto-kontrolko sistemak ezarri eta praktika onen kodeak gara ditzaten.

Horretarako, hurrengoek ekingo diegu:

- Ingurugiro alorretik iraunkorra izango den Kontsumoaren Plan Estrategikoa egitea, hurrengo 10 urteetarako.
- Jarduera-estrategien diseinuan, pertsona erabiltzaile eta kontsumitzaileek erakundeetan parte har dezaten bultzatzea.
- Kontsumoaren bitartekaritza garatzea, Euskadin zerbitzu hori martxan jartzeko beharrezkoak diren giza baliabideak ezarriz.
- Kontsumoaren Osoko Zerbitzuak bultzatzea.
- Euskadiko Etengabeko Prestakuntza-gune diren aldetik, “Kontsumo eskolak” finkatzea.
- Kontsumo-Sistema Arbitrala bultzatzea, zerbitzu publikoak kudeatzen dituzten enpresa guztiak derrigorrez atxikiaraziz eta, era berean, doako arbitraje publikoa bideratzen duten erakundeetara pizgarriak areagotuz.
- Pertsona kontsumitzaileak merkataritza elektronikoan daukan konfiantza areagotzea, hazkuntza ekonomikoaren mesedetan.
- Kontsumitzailearen Etengabeko Artapen-Telefonoa sortzea.
- Euskadi kontsumitzaileen alerta- eta segurtasun-sare europarretan sartzea.

IV.- BERDINTASUNERAKO ETA HEZKUNTZA ETA KULTURA GARATZEKO GOBERNUA

Gizarte- eta kultura-alorretan integratuago eta prestakuntza eta euskararekin konpromisoa bereganaturik duen Euskadi eraikitzeke, EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok, jarduera-ildo nagusizat, emakume eta gizonezkoen arteko erabateko berdintasuna, integratzeko eragile izango den hezkuntza, gizartean txertaturiko Unibertsitatea eta enplegu-faktore den lanbide-heziketa sustatuko ditugu, gazteria etorkizunera begirako apustu gisa hartuta. Hori guztia, gure Herriaren ikur den euskara oinarri harturik, guztiontzako kultura-ereduaren arabera eraikiko dugu.

1) Gizon eta emakumeen arteko erabateko berdintasuna

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok, emakume zein gizonezkoak alor publiko eta pribatuetan berdintasuneko partaidetza gorpuztuko duten gizartearen alde dihardugu. Berdintasuna, izan ere, giza eskubidea izateaz gainera, demokrazian sakontzeko eta gizarte bidezkoagoa eta kohesionatuagoa eraikitzeke premiazko lanabesa da.

Berdintasunaren aldeko neurrien garapenean aitzindari izan da Euskadi. Emakume eta Gizonezkoen Arteko Berdintasunaren Legearen eta Izatezko Bikoteak Arautzen dituen Legearen onespina gertakari historikoak dira, berdintasuna eta askatasun afektibo eta sexuala aintzat hartzen duen gizartearen euskailu direnak. Horrenbestez, oinarri horien gainetik, berdintasunaren aldeko apustuari eutsi nahi diogu, EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdion iritziz, berdintasunetz mintzatzea euskal gizarte osoarentzako gizate-justiziaz eta garapen demokratikoaz aritzearen parekoa baita. Hori dela eta, Emakume eta Gizonezkoen Arteko Berdintasuna garatzen duen otsailaren 18ko 4/2005 Legea eraginkortasunetz aplikatzeko konpromisoa hartzen dugu. Zehazkiago, ondoko neurriak hartuko ditugu:

- Emakume eta Gizonezkoen Arteko Berdintasunaren Defentsa zerbitzua martxan jartzea.
- Pentsioak ordaintzen ez diren egokieretarako Berme-Fondoa sortzea eta alarguntasuneko pensio txikiaren osagarriak ezartzea.
- Politika sozial, ekonomiko eta kulturalen garapenean emakumeen eta asoziazionismoaren benetako parte hartzeari bidea eman dakion eta, era berean, emakume eta gizonezkoen arteko berdintasun gaietan, euskal administrazioen aurrean baliozko artekaritza izan dadin, aipaturiko Legearen 24.5 artikulua adierazten duen topatze-organoa egiaz martxan jartzea.

Horiez gainera, hurrengo jarduerak ere burutuko ditugu:

- Enpleguan eta pestakuntzan emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna erdiesteko egintza positiboak bultzatzea, egun behar adinako ordezkariak ez duten lanbide eta sektoreetan emakumea lanean sar dadin sustatuz.

- Famili eta lan-bizitzak elkargarri izan daitezen laguntzea, lanaldia malgutzeko eta bestela antolatzeko neurriak hartuz eta gizarte-zerbitzuak sortuz.
- Erakundeen arteko Hitzarmena berritzea, etxeko bortizkerien eta eraso sexualen biktima izan diren emakumeen artapena hobetzeko.
- Zehartasuna bultzatzea, egintza eta jarduera guztietan berdintasun-politikak aplikatuz eta genero-dimentsioa aintzat hartuz.
- Emakumeen Jarduera Positiboaren V. Plana egitea.
- Genero kontuetan, berdintasun eta errespetuzko jokabide eta jarrerak sustatuko dituzten informazio sozialeko kanpainak martxan jartzea.

2) Hezkuntza, integrazioaren eragile

Gizakiaren errealizazioa, gizataldearen ongizatea eta gizartearen aurrerapena lortzeko funtsezko oinarria da hezkuntza. EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok osoko hezkuntza-sistemaren alde jardungo dugu, gizaki garatu eta lanbiderako gaituak erdiesteko.

Helburu horrekin, jatorri-alorreko desberdintasunak konpentsatu eta kultura- eta gizarte-aniztasunak integratuko dituen hezkuntza bultzatuko dugu: ikasleari behar bezalako heziketa emango zaio, pentsamendu propioa, kritikoa eta eraldatzailea eduki dezan.

Horrenbestez, legegintzaldi honetan hurrengo ekimenak bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu:

- Hezkuntza-alorreko Administrazioaren eta eskola-komunitatearen artean ahalik eta adostasun handiena bildurik, Euskal Hezkuntza-Sistemaren Legea sustatzea. Marko horretan ekin ahal izango zaio sistemak gaur dituen hiru hizkuntza-ereduen azterketari eta, bidezkoa balitz, eraldatzeari, horien aplikazioari buruzko txostena egin ondoren.
- Hezkuntza- eta artapen-tartearen ezarpen prozesuari (0 – 3 urte) jarraipena emateko, urtean gutxienez 1.000 plaza publiko berri sortuz, hiri aldeetan ahal dela, mutiko-neskatoen garapena, lanaldia eta famili bizitza bateragarri bihurtuko dituen osoko zerbitzua ikastetxe guztietan eskaini ahal izan dadin. Aldi berean, tarte horretan ordaindu beharreko kuoten mailakatzea aztertuko da, elkarbizitza-unitatea osatzen duten pertsonen errenta aintzat hartuta; beraz, gutxieneko diru-sarrera jakin batzuetara ez iristearren, premia bereziko kasuak gertatzen direnean, beka-sistema aplikatuko da.
- “Euskal curriculumaren” sakoneko egokitzapena egitea, hezkuntza-maila guztietan baliabide pedagogikoak digitalizatuz, oinarritzko enbor-ikasgaietan ahaleginak bilduz eta teknologia berrien ikaskuntza, ezagutza eta maneia indartuz, ikasgeletan informatikaren ezarpena jeneralizatzen; era horretan, ikasle-irakaslearen arteko komunikazio eta elkarreraginean ordenagailua beste baliabide bat izango da.
- Ikaskuntza, irakaskuntza eta kudeaketa alderdietan ez ezik, kreditatze eta kalitatearen egiaztatze prozesuetan ere, euskal hezkuntza-sistemaren funtzionamendua eta emaitzak balioztatu ahal izateko adierazle-sistema bat ezartzea.

- Hezkuntzan eleaniztasunera iristea, ikasleak euskaraz, espainieraz eta ingelesez aritzeko gauza izan daitezzen.
- Prestatzeko zailtasunak dituzten ikasleen artean baliabideak era egokian banatzeari esker eta, curriculumaren dibertsifikazio programen bidez, banan banako tratamenduak aplikatuz, eskola-porrota murriztea.
- Eskola-sare publikoaren antolamendua indartzea, beharrezko ikuskaritza- eta kontrol-bitartekoak dauzkaten ikastegiei autonomia handiagoa emanez eta, bidezkoa denean, Euskal Hezkuntza-Sare Publikoko zentroen osoko kudeaketarako eredia aplikatuz.
- EUDEL erakundearekin elkarlanean, irakaskuntza-zentro publikoetako Azpiegiturak Hobetzeko Aparteko Planari ekitea, instalazioak euskal gizartearen premien arabera egokitzeko.
- Irakaslearen figura indartzea, sindikatueta ordezkariekin elkarrizketa eta negoziazioak eginez, haren karrera profesionala bermatuz.
- IRALE eta GARATU programak ostera definitu eta formulatzea, irakasleen birziklatze eta prestakuntzaren egungo premietara egokitzeko.
- Mailakaturiko egungo laguntza-politika bultzatzea, eskolako gai, elikagai eta garraioetako beken onuradun diren pertsonen famili errenten gutxieneko mugak altxatuz.
- Ikasle Inmigrantearen Artapen Programa hobetzen segitzea.
- Oztopo arkitektonikoak suntsitze prozesuari eta lan-arriskuak prebenitzeko Legea betetzearen ondoriozko jardueri jarraipena ematea.
- Ikastetxeetan hasitako kalitate-prozesuekin aurrera jarraitzea, kalitate-egiaztagiri berriua duten zentroak guztien %60ra iritsi arte.

3) Unibertsitatea, gizartean txertatua

Euskal unibertsitate-sistema osatzen duten hiru Unibertsitateak —EHU, Mondragón eta Deusto— euskal gizartearen orainaldia eta etorkizuna eraikitzeke funtsezko tresnak dira.

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok XXI. mendeak ezarriko dizkigun erronkei aurre egiteko moduko unibertsitate sistema eratzea planteatzen dugu: kalitatezko irakaskuntza eskainiko duena eta, garapen ekonomiko, sozial, kultural eta teknologikoarekin konpromiso harturik, ingurunearekin loturiko ikerkuntza sormenezkoa egingo duena.

Horretarako, unibertsitatearen autonomia biziki errespetatuz, hurrengo jarduerak burutzeko konpromisoa hartzen dugu:

- Euskal unibertsitate-sistema goi-hezkuntzaren europar espazioan integratzea Euskal Unibertsitate-Sistemaren Legearen araudia garatuz eta irakaskuntza eta ikerkuntzara bideratutako diru-partidak pixkanaka areagotuz.

- Unibertsitatea antolatzeke lanabes den heinean, goi-irakaskuntzaren egoera ebaluatuko eta haren jarduteko premiak zehaztuko dituen Unibertsitate-Plan berria diseinatzea.
- Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean, Boloniako Prozesuaren markoan aurreikusitako erreformaren ondoriozko titulazioak jaso eta, era berean, goi-mailako prestakuntza alorrean, euskal gizartearen eskaera zehazkiago aseko duen titulu-mapa berria taxutzea.
- Euskal Herriko Unibertsitatearen jarduera gauzatzeko ohiko finantziazioa ez ezik, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako campusetako azpiegitura-programen finantziazioa ere bermatzea.
- Beka-politika egungo errealitate sozio-ekonomiko aldakorraren arabera egokitzea, laguntza orokorren, ikasleen mugikortasun- eta garraio-programen munta eta ezinduentzako eta ikasleen egoitzentzako laguntzak handituz.
- Unibertsitate-esparru guztietan euskararen behin betiko normalizazioa lortzeko, estimulu-politikak garatzea.
- Nazioartean erabiltzen diren hainbat hizkuntza unibertsitateko irakaskuntza- eta ikerkuntza-jardueretan sar daitezten sustatzea, EHU-k Goi-Prestakuntzarako Europar Espazioan sarrera izan dezan.
- Unibertsitateen, teknologia-zentroen eta enpresen arteko lokarriak eta itundutako jarduerak sendotzea eta, era berean, hezkuntza-prozesuaren hobekuntza lortzeko tresna den aldetik, ikasleen praktikak lan-baldintza duinetan egin daitezten sustatzea.
- Zientzia eta Teknologiaren Plana enpresa-munduarekiko sintonian garatzea, unibertsitatea, enpresa eta berrikuntza teknologikoaren arteko lotura errealitate bihurtuz.
- Doktoretza aurreko eta ondoko beken bitartez eta ikerkuntza-proiektuei loturiko beken bidez, ikertzaileen prestakuntza bultzatzea.
- Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean, goi-mailako ikerkuntza-jarduera sustatzea, kasuan kasuko lan-arean erreferentzia diren ikertzaileak Unibertsitate Publikoan sartzea sustatzen duten mekanismoen bidez.

4) Lanbide-Heziketa, enplegu-faktore

Hiru azpi-sistemen (prestakuntza arautua, etengabea eta lanbide-prestakuntza) bitartez, lan-munduan pertsona integratu eta bergizarteratzeko ate nagusia bihurtu da lanbide-heziketa Euskadin.

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdion iritziz, lanbide-heziketak bi helburu bete behar ditu, gutxienez: etengabe ikasten jarduteko gauza diren pertsonak prestatzea eta euskal lan-merkatuko langileak ezagutzaz eta trebeziez hornitzen laguntzea.

Helburu hori hartuta, oraindik orain onetsi den Lanbide-Heziketaren Euskal Plana garatu eta aplikatzeko konpromisoa hartzen dugu lehenatasunez Gobernutik; Plan horri esker, izan ere, lanbide-

heziketa geroz eta jantziago eta lehiakorrago bihurtzen ari den euskal lan-merkatuaren integrazioa orientatu ahal izango da.

Lanbide-Heziketaren Euskal Planaren markoan, lanbide-heziketaren azpi-sistema guztiak (prestakuntza arautua, etengabea eta lanbide-prestakuntza) bere baitan bilduko dituen eta prestakuntzarako hizkuntza gisa euskara berretsiko duen Euskal Lanbide-Heziketaren Legearen eztabaida eta onespina sustatuko da; horrez gainera, ondorengo ekimenak ere bultzatuko ditugu:

- Trebakuntzen sistema integratua gaurkotu eta zabaltzea, ekoizpen-sistemaren prestakuntza-premietara egokitzeko.
- Egungo eskaerari egokituriko urrutiko berariazko lanbide-programa martxan jartzea.
- Heziketa-zentro guztietako lanbide-heziketaren eskaintza era integratuan antolatzea.
- Trebakuntza eta Lanbide-Heziketaren Euskal Kontseilua sortzea.
- Lanbide-heziketan berrikuntza bultzatzea, teknologia berriak garatzea eta Unibertsitateekiko harremanetan sakontzea.
- Ikasgeletan informatikaren erabilera orokortzea; era horretan, ikasle-irakaslearen arteko komunikazio eta elkarreraginean ordenagailua beste baliabide bat izango da.
- Berrikuntza, ikerkuntza eta irakaskuntza sostengatzeko helburuz sortua den Lanbide-Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzarako Berrikuntza-Zentroa bultzatzea (TKNIKA) bultzatzea.
- Bigarren hezkuntzako zentroetan prestakuntza-zikloen egoera balioztatzea, berariazko zentroetara igaro ahal izatea baloratu.
- Administrazio Zentraletik, lanbide-heziketaren, lanbide-prestakuntzaren eta etengabekoaren egiazko transferentzia lortzea.
- Kolektibo guztietan (gazte, heldu, langile, zahar...) ikaskuntza jarraitu eta etengabeko heziketako jarduerak indartzea, trebeziez jabetzeko sarbide berdintasunezkoa eskainiz, gizarte kohesioaren mesedetan.
- Etengabeko prestakuntza garatzeko marko autonomoa erdiesteko konpromisoa berrestea, Etengabeko Lanbide-Heziketarako funtsezko elementua eta, halaber, Trebakuntza eta Lanbide-Heziketaren Euskal Kontseiluaren baitan diseinaturiko politika publiko hori betearazten duen erakunde teknikoa den Hobetuz Fundazioaren eginkizunari bestelako orientazioa emanez.
- Kalitatea lanbide-heziketaren ardatz bihurtzea, zentroetako erabateko kalitate-sistemak ISO-9001/2000 arauaren eskakizunetara egokitu.

5) Gazteria, etorkizunera begirako erronka

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdion iritziz gazteriak izan behar du bere etorkizunaren protagonista ez ezik, euskal gizartearen aurrerabidearen eta garapen iraunkorraren eragile eta hainbat gizarte-balioren (berdintasuna, justizia, elkartasuna, etab.) sustatzaile ere.

Egundoko prestakuntza hoberenaz jantzitako gazteria dugun arren, gaztaroak berarekin dakarren berariazko problematikaz arduratu behar dugu botere publikoak. Adiera horretan, enplegu, prestakuntza, etxebizitza, kultura eta aisialdi alorretan osoko jarduera bermatuko duen gazteria-politika bultzatuko dugu.

Horrenbestez, ondorengo ekimenak beteko ditugu:

- Gazteentzako kalitateko enplegu egonkorra eta, gazte ekintzaileen eskutik, enpresen sorrera sustatzea.
- Lanerako prestakuntza, eskarmentu eta birziklapena hobetzeko, gazteei zuzenduriko praktika eta prestakuntzarako lan-kontratuak sustatzea.
- Gizarte-zerbitzu gaietan enplegu-hobi berriak bultzatzea.
- 30 urtetik beherako gazte ezkongaiantzako eta 35 urtetik beherako bikoteentzako etxebizitzaren alogera sustatzea.
- Etxebizitza, enplegua, hezkuntza, aisia, kultura eta antzeko gaietan, euskal gazteriarri erantzun koordinatu eta egonkorra emango dion osoko arautegia lantzea.
- Trafiko-istripuen, alkohol eta gainerako drogekiko menpetasunen ondoriozko arazoan, sexu-transmisiozko gaixotasunen, nahi ez diren haurdunaldien eta elikadura alorreko trastornoen prebentzioa egin eta konpontzeko egintzak sustatu eta gauzatzea.
- Euskal Herri Administrazioen aholkularitza-organo den aldetik, Gazteriaren Euskal Kontseilua indartzea.
- Gazteriaren mugikortasuna, albergismoa eta lan-esparruen garapena sustatzea.
- Gazteri gaietako ikerkuntza bultzatzea, ikerlariantzako berariazko programak sortuz.
- Erregulatu gabeko jarduera okupazionala, hezitzaile soziokulturalen prestakuntza eta gizarte-boluntarioen mugimendua sustatzea.

6) Denentzako Kultura

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdion iritziz, euskal herritarren adierazpenen integrazio kulturalak gizabanakoa aberasten duen eta gizartea lotu eta kohesionatzen duen elementua da.

Politika kulturalaren funtsak kultura-eskubidea aintzat hartzea izan behar du; horretarako, herritar orori kultura eskura dezakeela bermatu behar zaio, ondare kolektibo, nortasunaren lanabes eta gizartearen aurrerabiderako tresna denez gero.

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok, kulturaren kohesio, gizartearen integrazio eta ekonomiaren garapeneko markoa osatzeko, euskal gizartearen aniztasuna eta kultura-adierazpen desberdinak defendatzen ditugu; hori erdiesteko, hurrengoak egiteko konpromisoa hartzen dugu:

- Kulturaren Euskal Plana garatzea; honen ildo estrategikoak euskara, ondare kulturala, kulturaren sorrera eta hedapena, kultura-industria eta ikus- zein eszena-arteak dira.
- Liburutegien Euskal Lege-Proiektua onestea eta Euskadiko Liburutegi Nazionala sortzea.
- Artxiboen Euskal Sistemaren Lege-Proiektua onestea, eta Euskadiko Artxibo nazionala sortzea.
- “Euskadi Institutua” sortzea, euskara eta euskal kultura kanpoaldean sustatu, hedatu eta proiektatzeko.
- Kulturaren, ikus- zein eszena-arten industria eta euskara bultzatuko duen organoa den aldetik, Arte eta Industria Kulturalen Euskal Institutua eratzea.
- Udal kultura-sareak sostengatzea.
- Kultura eskuratzeari dagokionez, herritarren parte hartzea eta aukeren berdintasuna sustatzea, ekonomia, prestakuntza zein azpiegituren gabezi alorreko eragozpen guztiak desagerraraziz.
- Zuzenean edo Foru Diputazioekin zein Udalekin elkarlanean, Azpiegitura Kulturalen Euskal Plana (2004-2007) garatzea.

Bestetik, kultura alorrean, ikus-entzunezko sektorea, oro har, bertan sorturiko euskal arte eta kultur lanak hedatzeko tresna baliotsua izateaz gainera, horren garapenak ekonomia-hazkundera eta enplegu-sorreran eragin mesedegarria du.

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok alor honetan garatuko dugun politika titularitate publikoko hedabideen sendotze eta garatzean ez ezik, Euskadiko ikus-entzunezkoen sektore pribatua sostengatu eta bultzatzean ere oinarritzen da.

Horretarako, hurrengo ekimenak egiteko konpromisoa hartzen dugu:

- Berdintasuna, tolerantzia eta elkartasun balioak ez ezik, aniztasun politiko, erlijioso, sozial, kultural eta linguistikoa sustatuko dituen ikus-entzunezkoen euskal sektore lehiakorra finkatu eta sendotzea.
- EITB erakunde publikoarekin beste programa-kontratu bat egitea.
- Ikus-entzunezko sektorearentzako laguntza instituzionalak areagotzea eta Ikus-entzunezko Sektorearen Erakundearen arteko Batzordearen funtzionamendua indartzea.
- Euskal Ikus-entzunezkoaren Lege-Proiektua lantzea.
- Euskal Ikus-entzunezkoaren Euskal Kontseilua sortzea.

- Tokian tokiko telebista digitalaren mapa zehaztea, gure izaera sozial, kultural eta linguistikoaren araberako komunikazio-espazioa moldatzeko.
- Irrati-telebista publikoen baitan, kanal tematiko kulturalak sustatzea.
- Telebista-produkzio propioaren kuota areagotzea.
- Herritarren intimitatea eta adin txikikoen eskubideak babestea, bortizkeria, sexu zein arrazakeriazko edukiei atek itxiz.

7) Euskara, Herriaren ikur

Euskara da Euskal Herriaren berezko hizkuntza ez ezik, herri garen aldetik, gure nortasunaren oinarritzko adierazlea, Euskal Autonomi Erkidegoaren muga geografikoez gaindi, Nafarroako Foru Erkidegoaren eta Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoaren ondare baita.

Orain arte euskararen erabilera eta normalizazio gaietan bete den politikak euskararen suspertze nabarmena ekarri du: hizkuntza horren erabilera soziala areagotu eta euskaldunen kopurua hazi egin da. Dena den, aurrerakada horrek ez du bermatzen hizkuntzaren iraupena. Euskara desagertzeko zorian bizi da oraino, iraungo duenik ezin da bermatu gaurkoz.

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok diogu euskara babestu beharra dagoela eta egintza positiboa gauzatu behar da haren alde, erabateko hizkuntza-normalizazioa erdietsiko bada; euskarak, beste aldetik, komunikatzeko, kultur trukatzeko eta gizartean integratzeko lanabes gisa ere balio du.

Horrenbestez, hizkuntza-politika integratzaile, malgu, errealitate sozialari egokitua garatzeko konpromisoa hartzen dugu; politika horren aplikazioak orain eta geroaldian euskara ezagutzea bermatuko du. Hurrengo ekimenak gauzatzeko ditugu:

- Famili giroan, gazteen arteko komunikazioan eta bere gizarte-ingurunean euskararen erabilera eta normalizazioa sustatzea.
- Euskararen erabilera interneten sustatzea, horretarako eduki digitalak sortuz.
- Euskal Herri Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko plan berriak ezartzea, euskara administrazio-unitate gehiagotan lan-hizkuntza izan dadin.
- Lanbide-heziketan euskarazko eskaintza handitzea.
- Ikus-entzunezko eta idatzizko hedabide guztietan euskararen presentzia sustatzea.
- Helduen euskalduntzean, hitzarturiko euskaltegien jarduera indartzea.
- Euskarazko ahozko eta idatzizko hedabideen finkapen, hobekuntza eta ugaltzea bultzatzea.
- Inmigranteek euskara ezagut dezaten bultzatzea, euskaltegi-sarearen bidez, hezkuntza-sisteman hizkuntza hori ikasteari esker.

- Alor sozio-ekonomikoan euskararen ezarpena sustatzea, sektorekako eta berariazko hizkuntza-normalizaziorako planak eratuz.
- Zine-aretoetan euskararen presentzia-kuotaren ezarpena bultzatzea.
- Teknologia berrien esparruan euskara ere sartzeko aplikazio eta baliabide tekniko berriak garatzea .

8) Kirola

Askatasun osoz eta nor bere borondatez kirola praktikatzea gizaki guztiei zor zaien eskubidea, aisialdia betetzeko aukera eta aztura osasungarria da.

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok Euskadirentzako kirol-eredu propioa planteatzen dugu, kirola osasunarekin, bizi-kalitatearekin eta integrazioarekin identifikatuko duena eta kanpoaldean Euskadi berezko nortasuna daukan herri gisa hedatzeko balio duena.

Horrenbestez, ondorengo helburu estrategikoak dituen kirol-politika egiteko konpromisoa hartzen dugu:

- Kirolaren Euskal Eskola ez ezik, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako bere zentroak indartzea.
- Euskal kirol selekzioek eta euskal kirolariak nazioarteko lehiaketetan esku har dezaten eta euskal kirol federazioak nazioarteko federazioetan integra daitezen bultzatzea.
- Bertoko kirolak garatzea, pilota, arraunketa eta herri kirolak bereziki, kasuan kasuko plan estrategikoak martxan jarritz.
- Kirol federazioentzako diru-laguntzen programa zabaltzea, programa-kontratuak eskarmentu gisa martxan ezarriz.
- Hezkuntza-sistemako maila guztietan kirolaren behar adinako presentzia bermatzea, jende guztiarentzako kirola sustatuz eta, herritar guztien aldetik, kirolaren praktika bultzatuz.
- Kirol-alorreko asoziazionismoa sustatzea, sustatzeko kanpainak egin eta dirulaguntzak emanez.
- Euskal kirolean bortizkeria, arrazakeria eta dopatzea prebenitzeko programak garatzea.
- Kiroleko ikerkuntza eta garapen teknologikoa bultzatzea.
- Euskal Kirol Federazioen egoitzetako ekipamendu-sareak Mendizorrotza (Gasteiz) estadioko instalazioetan osatzea.
- Kirolean Dopatzearen aurkako Prebentzio eta Borroka Plana egitea.
- Goi-mailako kirola bultzatu eta garatzeko Fundazioa sortzea.

V.- GURE INGURUMENA HOBETZEKO GOBERNUA

EAJ-PNV, EA y EB-Berdeak alderdiok berresten dugu ingurumena babestea giza eskubidea dela, ekonomia- eta gizarte-aurrerapenerako jarduerak eragiten dituen.

Garapen iraunkorra da, gure ustez, gaur egungo belaunaldiaren beharrei erantzuten diona, betiere etorkizuneko belaunaldien eskubideak arriskuan jarri gabe. Iraunkortasuna sektore-politika guztietara –garraioak, ekonomia, industria, etxebizitza, gizarte-ongizatea, azpiegiturak- bildu behar da ikuspegi horizontal batetik. Horiek horrela, EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok ingurumen-oreka ahalik eta gehien zainduko duen ingurumen-politika garatuko dugu, prebentzioa, arreta eta eragindako kalteengatiko erantzukizuna printzipioak goiburu direla.

Hala bada. Euskadi iraunkorragoa eta ingurumenarekiko adeitsuagoa eraiki nahi dugu, bat etorritik Nazio Batuen Milurteko Deklarazioarekin, Garapen Iraunkorrerako Euskal Estrategiarekin eta Ingurumeneko Europako IV. Ekintza-Programarekin.

Hori guztia lortuko badugu, erakundeek izan beharko dute ingurumen estrategiaren buru. Badira arlo horretan hainbat zeregin: gure airearen ingurumen-kalitatea hobetzea, gure ibai eta itsasoak garbitzea, kutsatutako lurra berreskuratzea, hiri- eta industria-hondakinak murriztea, gauzak berriro erabiltzea eta birziklatzea, energia eraginkor eta berriztagarriaren aldeko estrategia, ingurune naturalak eta babestutako guneak areagotzea, garraio iraunkorra garatzea eta ingurune naturala zainduko duen lurraren eta lurraldearen antolamendua.

Hurrengo legegintzaldian, Euskadiko iraunkortasuna eta ingurumenaren hobekuntza etengabe azalduko dira Eusko Jaurlaritzak sustatu behar dituen politika publiko guztietan. Horretarako, ahalegin handiagoa egingo da Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorrean jasota dauden Euskal ingurumen-politikaren organo kudeatzaileek jarrai dezaten profesionalizatzen eta teknifikatzen beren eguneroko jardunean, askatasun osoz arituz, eta burutu behar diren ingurumen-prozesuaren atal guztietan gizarte-mugimenduak eta talde ekologistak aintzat hartuz, batik bat ingurumenaren eragina ebaluatzeko garaian, izan ere, orain arte horrela lan egin delako gizarteak onartu egin ditu eta ontzat eman ditu politika horiek, eta aurrerantzean ere halaxe izango da.

1) Ingurumen-estrategia

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok, garapen iraunkorra ahalbidetzearren, politika- eta ekonomiaren politika-kudeaketan ingurumen-adierazlea jasotzearen aldekoak gara. Horrenbetsuz, hitz ematen dugu honakoak egingo ditugula:

- Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen-estrategian (2002-2020) aurreikusitako konpromisoak betetzea. Estrategia horretan biltzen dira uraren, lurzoruen, airearen, bioaniztasunaren, natur baliabideen babesaren eta bioaniztasunaren prebentzioaren arloak.

- Ingurumeneko II. Esparru-programa gauzatzea, zehaztuko dituen estrategiari dagozkion arlo guztietan egin beharreko ekintzak.
- Ingurumenaren Ikuskaritza eta Kontrolerako Plana abiaraztea bultzatzea. Plan horren xedea da ingurumen-legedia eta Ingurumenaren hobekuntza bermatzea.
- Herri Administrazioaren Euskal Erakundearekin (IVAP), Foru Aldundiekin eta Udalekin batera, Euskal administrazio publikoetan diharduten langileei zuzendutako Ingurumen-prestakuntzarako Plana 2003-2006 garatzea.
- Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak eta EUDELEk osatzen duten UDALSAREA (Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarea) bultzatzea. Helburua da hurrengo legegintzaldian lortzea euskal udalerrri guztiek, gizarte-alderdia nahi dutenak barne, behin betiko ezarrita edukitzea TOKI AGENDA XXI. Horrenbestez, prozesu hori bultzatzearen, gizarte-gaietan eta ingurumenaren arloan eskumena duten autonomia-organoek udalen eskura jarri beharko dituzte gizarte- eta ingurumen-alderdiak garatzeko behar diren elementu teknikoak, eta ezarpen prozesua koordinatuko dute, betiere udal-autonomia aintzat hartuta eta UDALSAREA esparruaren barruan.
- Garapen Iraunkorraren aldeko Eskualdeko Gobernuen Sarea bultzatzea. Eusko Jaurlaritza sare horren sortzaileetarikoa bat izan da, eta sareak balio izan du Munduko eskualdeen arteko lankidetzatresna izateko eta ingurumenari buruzko nazioarteko foroetan parte hartzeko ere bai.
- Euskadiko ikastetxeetan Eskolako Agenda XXI bultzatzea.
- Parte hartze eta kontsulta-organoetan, adibidez Ingurumen Aholku Batzordean eta Uraren Euskal Kontseiluan, herritarren eta ekonomia-, gizarte- eta ekologia-eragileen parte hartzea bultzatzea.
- Industria-inbertsioetarako ekonomia- eta finantza-araudia bultzatzea, ahalbidetuko duena industrien ekipamendu eta teknologia ekologikoagoak izatea.
- UDALSAREArekin batera, Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Plana onartzea. Plan horrek bildu eta indartuko ditu sektore-politika guztiak, eta, bereziki, garraio, industria, energia, egoitza eta nekazaritza arloak, Kyotoko Protokoloan hartutako konpromisoak betetzearren. Plan horren harira, Klimaren aldeko Euskal Udalen Sarea eratzea bultzatuko da.

2) Gure airearen kalitatea

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok aldarrikatzen dugu klima-aldaketaren aurkako borroka eta negutegi efektua eragiten duten gasen murrizketak bermatzen dutela gizateriaren biziraupena eta benetako garapena, eta onartzen dugu airearen kalitatea hobetzea eta kutsadura akustikoa murriztea ardatz nagusi direla bizitza osoa eta osasuntsua ziurtatzeko.

Horrenbestez, hitz ematen dugu honakoak egingo ditugula:

- Prebentziorako eta airearen kalitatea hobetzeko udal-ekintzen plana lantzea.
- Atmosfera-kutsadurarengatiko Larrialdi-plana eguneratzea, bai eta atmosfera-kutsadura dagoenerako jarduera-neurrien alerta-protokoloa ere.
- Airearen Kalitatearen Kontrol-sarea hobetzea eta zabaltzea, ekipoak berritzea eta kontrol-estazio berriak ezartzea.
- Atmosferari buruzko informazio-panelak instalatzea Euskadiko udalerrri nagusietan, eta Euskadiko airearen kalitatearen Adierazle Globala lantzea.
- Negutegi efektua eragiten duten gasen jaulkipena murriztea. Horretarako ziklo konbinatuaren bidez elektrizitatea sortzen duten industriak ezartzea bultzatuko dugu.
- Ekintza-plan akustikoak abiaraziko ditugu, eta kutsadura akustikoaren jaulkipenak eta iturriak prebenitzeko, kontrolatzeko eta konpontzeko neurriak hartuko ditugu. (Zarata-Mapak eta Ekintza-plan Akustikoak).
- Airearen kalitatearekin eta hidrokarburoen erabileragatik sortzen den poluzioarekin zerikusia duen teknologia-ikerkuntza bultzatzea.
- Ozono geruza kaltetzen duten gasen jaulkipena murriztea.

3) Gure ibai eta itsasoak garbitzea

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdion iritziz, arrazionaltasunez eta arduraz erabili behar den ingurumen-ondasuna eta natura-baliabide funtsezkoa da ura; hala bada, itsas ingurunea eta itsasertzeko guneak babes egokia eta kudeaketa arduratsua eskatzen duten natura-baliabideak direla adierazten dugu.

Horrenbestez, hitz ematen dugu honakoak egingo ditugula:

- Itsasertza Babesteko eta Sektoreka Antolatzeko Lurralde-Plana onartzea.
- Autonomia Erkidegoko arroen Plan Hidrologikoa lantzea.
- Ibai eta Erreka Bazterren Sektorerako Lurralde-plana berriro aztertzea. Bere baitan bilduko du Uholdeak Prebenitzeko Osoko Plana.
- Uren Legea onartzea eta Uraren Euskal Agentzia sortzea.
- Bukatzeke dauden saneamendu eta arazketako azpiegiturak burutzea.
- Arabako Lurralde Historikoan egiteke dauden ureztatze-azpiegituren eraketa bultzatzea.
- Ereku hidrikoa babesteko neurriak ezartzea, eta hezeguneak eta ibaietako ibilgu eta ertzak lehengoratzeko jarduerak burutzea.

- Lurrean, ibaietan eta itsasertzean gai arriskutsuen jaulkipena murriztea.
- Kosteï buruzko Legea itsasertzaren benetako kudeaketa baten beharretara egokitzeko eskatzea, besteak beste, itsas kutsaduraren prebentzioa bermatzearen.

4) Hondatutako lurak berreskuratzea

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok, lurrari buruzko jardueri dagokienez, lurak berak dituen natura-funtzioak izango ditugu gidari eta endekatutako lurak leheneratzen eta horiek giza jardueretarako arduraz erabil daitezten jardungo dugu.

Xede horretara, hitz ematen dugu honakoak egingo ditugula:

- Prebentziorako eta Lurraren Kutsadura Zuzentzeko Legea garatuko dugu. Lege horren helburua da lurra babestea.
- Euskadiko Lur Kutsatuen Plana lantzea.
- Kutsatutako lurak leheneratzeko jarduerak bultzatzea, eta Udalentzako eta Mankomunitateentzako laguntza-programari eutsiko diogu.
- Lurraren Higadura Kontrolatzeko eta Prebenitzeko Plana landuko dugu, eta gune higatzaileek eragindako esparruak leheneratzekoa ere bai. Hain zuzen ere, harrobiei buruzko politikari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak, Harrobien Sektorekako Lurralde-planaren esparruan, gai horri buruzko politika publikoa sustatuko duen harrobien mapa egingo du.
- Lurraren kutsaduraren kontrol integratua burutuko da industria-, energia-, abeltzaintza- eta nekazaritza-jardueren esparruan.

5) Hiri- eta industria-hondakinen murrizketa, berrerabilpena eta birziklapena

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdion iritziz, prebentzio, murrizketa, berrerabilpen, birziklapen eta balioespen kontzeptuek gidatuko dute hondakinen gaineko jarduera.

Horrenbestez, hitz ematen dugu honako jarduera hauek bideratuko ditugula:

- Euskadiko Hiri-hondakinen Plana lantzea, biztanle bakoitzeko sortzen diren hiri-hondakinen kopuruari eusteko eta zabortegetako hiri-hondakinak murrizteko.
- Industria- eta merkataritza-jatorriko Hondakin ez Arriskutsuen Plana burutzea.
- Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Hondakinen Prebentzio- eta Kudeaketa-plana garatzea.
- Eraispene-hondakinen berrerabilpena eta birziklapena bultzatzea.
- Hondakinen murrizketa, berrerabilpena, birziklapena eta balioespena lortzera bideratutako jarduerak areagotzea, pertsonen osasuna eta ingurumena babestearren. Hain zuzen ere,

indarrean dagoen Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorren eta berriazko araudiaren esparruan, itzultzeko ontzien erabilera sustatuko da gizarte-kontzientziazio zuzenerako neurri gisa .

- Hondakinak ekoizteko eta kudeatzeko jardueren kontrola areagotzea, bai eta horietako kudeaketa-sistema integratuak ere.
- Toki erakundeei laguntza zuzenak ematea, elektronika- eta elektrizitate-ekipoiei dagozkien hondakinak kudeatzeko.
- Hondakinen hari zuria, batez ere hozkailuak, kudeatzeko sistema integratua abiaraztea eta finantzatzea.
- Hondakin Arriskutsuen Kudeaketa-plana burutzea eta eguneratzea.
- Erabileratik kanpo dauden ibilgailuak deskutsatzeko hasitako ekintzei eustea.

6) Energia eraginkor eta berriztagarriaren aldeko estrategia

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok energia arrazionalaren alde gaude. Gure ustez, kontsumitu gabeko energia da garbiena eta merkeena, eta energia berriztagarriak lehenetsi beharreko ardatza da, garapen iraunkorra eta natura-baliabideekiko errespetua bermatzen duelako.

Eusko Jaurlaritzaren iritziz, eztaba daezina da Euskadiko 2010 Estrategi Energetikoa garatu egin behar dela, helburu baitu energia berriztagarriak –eguzkia, minihidroloikoa, eolikoa eta biomasa, batez ere- urte horretan ekoiztutako energiaren %12 izan daitezen. Arreta berezia eskainiko zaie honakoei: parke eolikoei eta itsas indarrezko energiari; eraginkortasuna eta energia aurrezteko neurriak abiarazteari, harik eta legegintzaldia bukatzen denean 975.000 tep/urteko lortu arte; gas naturalaren erabilera areagotzeari, garbiena baita, biztanlegoaren %52ra irisi arte; eta 2010erako auto hornikuntza elektrikoa lortzeari. Era berean, lehenestekoak izango dira RSUko composta egiteko plantak, gaur egungo energia-alternatiben parekoak baitira.

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok, gaur egungo edo etorkizuneko edozen energia-proiektu dela-eta, indarrean dagoen lurralde-, hirigintza- eta ingurumen-legediarekiko begiramena bermatzen jarraituko dugu. Hala ere, erraustegiei, zentral termikoei eta RSUri buruzko politikari dagokienez, talde bakoitzak bere ideiei, bai ideologikoei zein politika- eta erakunde-praktikari dagozkienei, eutsiko die.

Horrez gain, Euskadiko Estrategia Energetiko Berria ezartzearen, honako konpromiso hauek beteko ditugu:

- Europako gas-sarearekiko lotuneak osatzea Irunen, eta Arrigorriagako, Santurtziko eta Bergarako gasbideak zabaltzea.
- Gasifikatzeko sarearen eraikuntza sustatzea, gasa hornitzearren landa-ingurune udalei, hartara ingurune horietako ekonomia-garapena eta bizitza-kalitatea bultzatuko dugu.

- Hornikuntza, sorkuntza, eraldaketa eta garraio ekipoen ikerkuntza teknologikoa eta berrikuntza energetikoa bultzatzea, bai eta elektrizitatea sortzeko sistema berriak ere.
- Santurtzi eta Pasaiako ohiko zentral termikoen ordezkapen progresiboa sustatzea, eta ziklo konbinatuko instalazio energetiko berriak jartzea haien ordeztuz, Kiotoko Protokoloa betetzen dela ziurtatzearen.

7) Babestutako naturguneak

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdien ustez, natur ingurunearen kontserbazioak oreka gorde beharko du, batetik, babesa eta, bestetik, nekazaritzako, basoko eta ekonomiako jarduerak bateragarriak izan daitezten

Horrenbestez, honako konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Red Natura 2000ko habitatak eta espezieak kudeatzeko, babesteko eta leheneratzeko planak garatzea.
- Entziako Parke Naturala izendatzea, eta dagokion Natur Baliabideen Antolamenduari buruzko Plana onartzea.
- Desagertzeko arriskua daukaten espezie guztientzako kudeaketa-planak ezartzea.
- Foru Aldundiarekin batera, eta adostu ondoren, Ehizaren Legea sustatzea, zinegetika-baliabideak era iraunkorrez baliatuko dituen, espezieen biziraupena eta berreskuratzea bermatuko duena eta bateratuko dituen ehiza eta herritarrek natur inguruneaz gozatzea.
- Euskadiko Korridore Ekologikoen Sarea ezartzea.
- Euskadiko Bioaniztasunaren Behatokiaren Sarea ezartzea.
- Bioaniztasunari buruzko Prestakuntza, Hezkuntza eta Sentsibiltate Plan Estrategikoa lantzea.
- Ingurumen-eragin handiko endekatutako guneak, alegia, harrobiak, zaborteak eta meategiak, leheneratzeko ekintzak areagotzea.
- Natur baliabideei eta babestutako guneei –parke naturalak eta biotopoak- buruzko legedia egokitzea Europar Batasuneko arau berrietara.
- Urdaibaiko Biosfera-Erreserbaren eta Euskadiko Bioaniztasunaren Interpretazio Zentroa abiaraztea.

8) Garraio iraunkorra

Garraio-politikak gure gizartearen mobilizazio beharrei erantzun behar die, izan ere gizarte dinamikoa eta modernoa da gurea, mundu globalizatu batean bizi dena. Baina politika horrek ez du

hipotekatu behar hurrengo belaunaldien garapenerako eta ongizaterako gaitasuna, hau da, garraio iraunkorraren aldeko politika izan behar da.

Horretarako, EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok garraio modu iraunkorrenak bultzatuko ditugu, alegia, tren eta itsasoko garraioa. Beraz, tren-korridore transeuropearra, Atlantiko kontinentaleko ardatzeko itsasoko autobideak eta nazioarteko aire-intermodalitatea, Gasteizko aireportua merkantziatarako eta Bilboko bidaiarientzako, lehenetsiko ditugu.

Esparrua hori izanik, Eusko Jaurlaritzaren jarduerak honako hauek garatuko dituzte: tren bidezko eta itsaso bidezko garraioaren indarra areagotzea, bai merkantziari eta bai bidaiariari dagokienez ere, oreka modala berreskuratzeko; osoko eta taldeko garraio-sistema bultzatzea, garatuko dena eraginkortasun, efikazia eta kalitatearen irizpideekin bat etorrira, eta hurrengo belaunaldien beharrak asetzeko gaitasuna konprometituko ez duena; eta Garraio Iraunkorraren Gidaplana (2002-2012) garatzea, sistemaren osoko kudeaketa lortu ahal izateko, herritarren irisgarritasun eta mobilitate beharrei erantzuteko eta garraio moduak orekatzeko.

Hori guztia lortzearen, honako konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Bidaiarien eta merkantzien garraio-sektorea modernizatzeko neurriak bultzatzea; xede horretarako, kalitate-sistema eta komunikazio- eta informazio-teknologia berriak ezarriko dira.
- Euskadik Europan duen toki estrategikoa indartzea, Akitania-Euskadi Plataforma Logistikoa izeneko ekonomia-intereseko talde europarra bultzatuz, eta Arku Atlantikoaren Batzordean parte hartuz.
- Vitoria-Gasteizko aireportuan, Araba erdialdean eta Bilboko portuan Jarduera Logistikoetarako Gune eta Plataformak eraikitzea.
- Vitoria-Gasteiz eta Lille (Frantziako iparraldea) lotuko dituen merkantzia-garraioetarako tren-linea ezartzea.
- Europako portuen artean merkantzia-kabotajeko garraioa sustatzea, itsas bidea (itsas autobidea) ezarriz Bilboren eta Dunkerkeren (Frantziako iparraldea) artean.
- Sare Intermodal eta Logistikoaren Lurraldearen Arloko Plana onartzea.
- Logistikaren garraio-arloko agenteen prestakuntza indartzea.

9) Natur inguruneari begiratzeko dion luraren eta lurraldearen antolamendua

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdion iritziz, lurraldearen antolamenduak ekonomiaren eta gizartearen garapena, naturaren babesa eta guztion ongizatea eta bizitza-kalitatea bildu behar ditu.

Horrenbestez, ondokoak egiteko konpromisoa hartzen dugu:

- Zenbait eskualdetan gauzatu gabe dauden Lurralde Zatik Planak onartzea.

- Kultura Ondarea, Nekazaritza eta Basogintza. Portuak, Harrobiak, Turismoa eta Itsasertza Antolatzeko Lurralde Zatik Planak onartzea.
- Natur baliabideak antolatzeko planak Europar Batasuneko arau berrietara egokitzea.
- Hezeguneetako Lurraldearen Arloko Planak babesten dituen guneak hobetzea ingurumenaren aldetik.
- Txingudiko Natur Baliabideak Babesteko eta Antolatzeko Plan Bereziaren bidez, kirol-instalazioek betetzen dituzten guneak leheneratzeko lanak.
- Urdaibai Biosfera Erreserbako Jarduera Sozioekonomikoen Egokitzapen eta Garapenerako Egitaraua (PADAS) bultzatzea, dagozkion alorreko planen bidez.
- Habitaten, Landarediaren eta Euskadiko Lurraren erabileraren Mapa berria bukatzea.
- Lurraldearen Antolamendurako Zuzentarauak berriro aztertzea eta Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen-Estrategian aurreikusitako iraunkortasun eskaeretara egokitzea
- Hirigintzako udal planeamendua iraunkortasun irizpideetara egokitzeko bidea jartzea.

VI.- GURE PRESENTZIA MUNDUAN PROIEKTATZEKO GOBERNUA

Euskadi estaturik gabeko nazioen artean, lehenengoetarikoa izan da erakusten, ekintza jakinen bidez, Europako Erakundeetan egon nahi duela, atzerriko taldeekiko arreta eskaintzen duela, nazioarteko erakundeekin hitzarmenak sinatzen dituela eta garapenerako eta elkartasunerako lankidetzaren arloan programak abiarazi dituela.

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok nahi dugu Euskadi solidarioagoa eta mundura irekiagoa eraiki, eta xede horretara, munduko herri babesgabeen garapenerako lankidetzaren politika bidezkoa eta solidarioa garatu nahi dugu, izan ere Nazio Batuen Milurteko Deklarazioan azaltzen diren helburuak bete nahi ditugu Herri gisa. Mugaz gaindiko lankidetzaren etengabearen aldeko lanean arituko gara, Iparraldearekiko auzo harremanak estutzearren eta euskal euroeskualdearen oinarriak ezartzearren. Euskadi Europako eta nazioarteko toki gorenetan jarri nahi dugu, Ordezkaritzen bidez, eta erakundeetako, ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren esparruetako kanpo-ekintza egokia planifikatuz; orobat, Europaren eraikuntzan parte hartu nahi dugu, eta horretarako, Europar Batasuneko foro eta erabaki-esparruetan parte hartu. Euskal Etxeen garapena bultzatu eta sendotu nahi dugu, horiek baitira munduan ditugun enbaxadoreak. Azkenik, Euskadiko politika-, ekonomia-, gizarte- edo kultura interesak defendatzearren behar diren nazioz gaindiko foro eta erakunde edo organo guztietan parte hartu nahi dugu.

1) Gu Europan egotea

Gure kanpo-proiektzioaren abiapuntua hurbilen dugun ingurunea izan behar da, alegia, Europa.

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok, Europaren eraikuntzari dagokionez, herri guztien gizarte-, ekonomia- eta politika-koherentsia bermatuko duen prozesuaren aldekoak gara, betiere aniztasuna eta autogobernurako bidezkoak diren eskubideekiko errespetua aintzat hartuta.

Gure ustez, Europak kultura askotarikoa behar du izan, federazio kontzeptzioaren eta borondatezko atxikimenduaren arabera eraikia, eta osatzen duten herri guztiekiko errespetuz betea. Gizarteari dagokionez koherentsia, eta eskualdeen, estatuaren eta herrien arteko nazioarteko lankidetzaren guneetara irekia.

Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzaren bitartez, konpromisoa hartzen dugu Euskadiren identitatearen eta izaeraren isla erakutsiko duen Europa eraikitzeke. Hala bada, honako ekimen hauek bideratuko ditugu:

- Batasuneko foroetan eta Batasuneko erabaki-foroetan areagotzea gure parte hartzea. Horren harira, saiaturiko gara Europar Batzordearekiko erakunde-harremanak sendotzen, eta bestalde, Europar Batasuneko Justizia-azuztegiaren jarduteko legitimazio zuzena lortzen.

- Geure eskumenen alde egitearren, euskal erakundeak Europar Batasuneko erakunde eta organoetan bertan egoteko eskatzea.
- Euskararen ofizialtasuna Europar Batasunean bultzatzea.
- Subsidiarioritasun printzipioa egoki aplikatzeko lan egitea, bai eskualdeetan eta bai tokian-tokian ere.
- Europar Batasunarekin zerikusia duten Alorreko Konferentziaren erabakiak egoki garatzea.
- Europar Batasuneko Ministro Kontseiluetan Euskadik parte hartzeko gaiak gehitzea.
- Eskualdeetako Batzordean gure presentzia areagotzea, Gobernuaren sailen parte hartze aktiboa bultzatuz.

2) Eskualdearteko eta mugaz gaindiko lankidetzak

Euskal Herria osatzen dugun mugaren bi aldeetako lurraldeak lotzen gaituzte historiak, kulturak eta hizkuntzak, bai eta ekonomia-, merkataritza-, edo azpiegitura-interesek ere. Horiek guztiak funtsezko faktoreak dira mugaz gaindiko euskal euroeskualdearen eraikuntza dinamizatzeko.

Ikuspegi hori dugunez, Eusko Jaurlaritza medio, EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok bidea emango diegu Akitaniako eta Nafarroako Foru Komunitateko erakundeekin mugaz gaindiko lankidetzak areagotzeko ekimenei. Horrez gain, eta aldi berean, Europako beste erkidego eta eskualde batzuekin izan daitezkeen bi aldetariko harremanak sustatuko ditugu, eskualdearteko lankidetzak eta Euskadiren proiektzioa Europan areagotzeko.

Ildo horretatik, honako konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Mugaren bi aldeetako euskal lurralde eta erkidegoen lankidetzak egituratuko duten proiektuak bultzatzea, batez ere euskara, hezkuntza, garraio, industria, nekazaritza, arrantza, osasun eta kultura arloetan.
- Mugaz gaindiko lankidetzarako Erakundearteko Mahaiaren eraketa sustatzea. Parte hartuko lukete Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Akitaniako Eskualde Kontseiluak, Pirinio Atlantikoetako Kontseiluak, Iparraldeko Hautetsien Kontseiluak eta Frantziako Gobernuak.
- Euskadi-Akitania-Nafarroa lankidetzak-fondoa bultzatzea.
- Iparraldeko erakundeek, elkarteek eta biztanleek Euskal Erakundeei buruz duten ezagutza hobetzea.
- Pirinioetako Lan Elkarteen jarduerak bultzatzea.
- Legegintza-eskumenak dituzten eskualdeen talde-jarduerak indartzea. (Red-Leg).

- Arku Atlantikoaren Batzordearen ekintzak gehitzea eta, horretarako, esparru Atlantikoko Eskualdeen toki estrategikoa indartu.

3) Euskadi atzerrian

Aurreko legegintzaldian indar handia eman zitzaion kanpo-politikari, izan ere Euskadiko Ordezkaritzak sortu ziren Madrilen eta Latinoamerikako hainbat herrialdetan, hain zuzen ere, Mexikon, Argentinan, Txilen eta Venezuelan, eta horiekiko harremana estua eta askotarikoa da.

Esparrua hori izanik, EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok honako konpromisoak hartzen ditugu:

- Euskadik Europan eta Amerikan dituen interesetarako lehenestekoak diren gune geografikoetan ordezkariak berriak sortzea
- Eusko Jarurlaritzaren eta nazioarteko erakundeen arteko lankidetzaharremanak garatzea eta zabaltzea.
- Nazioarteko gaietan gogo biziz parte hartzea, eta munduari eragiten dizkioten arazoetan ardura hartu gainerakoekin batera.
- Euskadiko Kanpo Ekintzako Estrategian aurreikusitakoak garatzea eta aplikatzea.

4) Euskal kolektibitateak munduan

Historian zehar, belaunaldiz belaunaldi, euskaldun asko joan dira Euskaditik atzerrira, eta hartutako gizarteetan integratu dira, baina jatorrizko identitatea ahaztu gabe. Euskaldunek beren sustraiak eta kultura gordetzeko duten gogo horrek eragin zuen Euskal Etxeak sortzea Ameriketara, batez ere XIX. mendetik aurrera.

Eusko Jaurlaritzak beti izan du lotura sendoa atzerriko euskal kolektiboekin, eta maiatzaren 27ko 8/1994 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko euskal gizatalde eta etxeekiko harremanei buruzkoa, onartu ondoren jauzi kualitatiboa gertatu zen.

Euskadiren eta atzerriko euskaldunen arteko harremanak sendotzeko politika horri eustearren, EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok hitz ematen dugu honako ekintza hauek bideratuko ditugula:

- Politikoki euskaldun izaera izan eta atzerrian bizi direnen aldeko gizarte-babeserako, laguntzarako eta hezkuntzarako neurriak ezartzea.
- Politikoki euskaldun izaera dutenen itzulera arautzea.
- Euskal kultura sustatzeko eta zabaltzeko, gazteak prestatzeko eta Euskal Etxeak mantentzeko diru laguntzak ematea.
- Euskal Emigrazioaren Museoa sortzea, eta emigrazio horri buruzko dokumentuak berreskuratzeko proiektua garatzea.

5) Elkartasuna eta lankidetzak

Garapenerako Nazio Batuen Programaren (PNUD) aportazioetan oinarritutako giza garapenaren osoko kontzepzioari lotzen zaio Euskadik garatu duen lankidetzak ereduak.

EAJ-PNV, EA y EB-Berdeak alderdiok garatu ditugun politikaren ezaugarriak honakoak izan dira: garapenerako lankidetzak publikoari buruzko ekimenetan dirua irabazteko xederik egon ez izana, genero ikuspegia ekartzea, ekintza humanitarioetarako aurrekontu-baliabideak gehitzea eta lankidetzaren alorreko erakundeekin harremana handia eduki izana.

Egindako lanarekin bat etortzearen, hitz ematen dugu honako ekimenak garatuko ditugula:

- Gobernuak berria eratu eta sei hilabeteko epean Garapenerako Lankidetzari buruzko Lege-egitasmoa igorriko dugu Legebiltzarrerara, aurreko legegintzaldian Gobernu Kontseiluak onartu zuen bezalaxe idatzita.
- Nazio Batuen Milurteko Deklarazioaren helburuak betetzearen, lankidetzarako laguntzak gehitzea; horretarako, gehitu egingo dira Euskadik garapenerako lankidetzarako dituen ekonomia-baliabideak, Estatuko Autonomia Erkidego solidarioenetakoa bihurtuz.
- Garapenerako Lankidetzari buruzko Plan Zuzentzailea lantzea eta onartzea. Lau urtekoa izango da, eta Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordeak onartutako ildo estrategiko eta ekonomikoen arabera eguneratu eta ebaluatuko ditu Euskal Lankidetzaren helburuak eta lehentasunak.
- Garapenerako Lankidetzako Erakundearen erregistroa abiaraztea, lankidetzako agenteen antolaketa eta informazioarako tresna gisa.
- Babes gutxien duten herrietako berdintasuna, hezkuntza, osasuna eta garapen iraunkorraren helburuak jasotzen dituzten lankidetzak-programak indartzea.
- Giza garapenaren arloan diharduten alde askotariko esparruetan eta nazioarteko erakundeetan euskal lankidetzak publikoaren parte hartzea areagotzea.
- Euskal administrazio publikoaren (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Udalak) garapenerako lankidetzak politikak koordinatzeko bide berriak sortzea.
- Euskal lankidetzak indartzea gunerik pobreenetan, gatazkak dauden gunetean, giza eskubideak urratzen diren herrialdeetan, emergentzia humanitarioko egoeran dauden gunek geografikoetan eta Euskadirekiko harremana duten estatu gabeko herrialdeetan.
- Lankidetzarako Euskal Kontseilua berriz ere abiaraztea, nazioarteko elkartasunerako politika publikoaren alorrean erakunde- eta gizarte-agenteek parte hartzeko organo gisa.
- Kooperantearen irudia sendotzea, elkartasunaren esparruan gaitasunak eta ahalmena dituen pertsona gisa, eta lan- eta gizarte-eskubideak dituen subjektu gisa ere.

VII.- GAUR-GAURKO ADMINISTRAZIOA, HURBILA ETA ERAGINKORRA, JENDEAREN ZERBITZURAKOA

Administrazio publikoen helburua da biztanleen beharrak asetzea unibertsaltasun irizpideen arabera, gizarte bidezkoagoa eta solidarioagoa lortzearen. Horrek administrazio dinamikoa, parte hartzailea, eraginkorra eta efikaza, gizartearen zerbitzurako gardentasunez, objektibotasunez eta inpartzialtasunez lan egiten duena eskatzen du.

Gaur egungo Administrazioan dihardutenak integratuta daude, bere lana aintzatesten da eta lansari egokiak dituzte.

Gaur egungo Administrazioak kalitatearen bidean dihardu buru-belarri.

Gaur egungo Administrazioak teknologiak eskaintzen dizkion aukera guztiak baliatzen ditu, baina bere beharretara egokituta. Teknologiak pertsonak ordezkatzeko dituzten ohiko prozesuetan, eta pertsona horiek, berriz, berrikuntza, ezagutza eta balio erantsia ematen dute.

Gaur egungo Administrazioak zerbitzen duen gizartearen ikuspegi globala du.

Helburua hori izanik, eta aurreko legegintzaldietan egindako lanari jarraipena ematearren, EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok konpromisoa hartzen dugu Gobernu-ekintzaren planifikaziorako tresnak etengabe egokitzeko jarduerak sustatzeko, giza baliabideen politika eraginkorra ezartzeko, hazkunderaren eta solidaritatearen zerbitzurako finantza-sistema ezartzeko eta, azkenik, lurralde eta udal kohesioari bidea emateko.

1) Gobernu-ekintzaren planifikazioa eta Administrazioaren egitura eta antolaketa

Eusko Jaurlaritzak Gobernu-ekintza koherentea garatu du, eta irizpide izan ditu, adibidez, politika publikoak planifikatzeko eta gauzatzeko euskal erakundeen arteko lankidetzak eta partaidetza; programa betetzerakoan jarduerak integratuta lortzearen, Gobernu-ekintzaren koordinazio orokorra eta sektorekako; edo, azkenik, politika publikoak diseinatzerakoan, planifikatzerakoan eta koordinatzerakoan, elkarren arteko planifikazioaren, guztien parte hartzearen edo kalitatea eta etengabeko hobekuntzaren kultura sustraitzea.

Hori guztia hala izanik ere, Europar Batasunean egindako ikerketak kontuan hartuz (Batzordearen txostena, Europako Gobernatzeari buruzkoa, Europako Gobernatzeari buruzko Liburu Zuria...), honako legegintzaldi hau ezin egokiagoa da Gobernu-ekintzaren planifikazio eta koordinazioko gaur egungo tresnak zorrotz aztertu eta egokitzeko gobernatzeko era berrietara. Hori erdiestearren, beraz, une egokia da Euskadiko Gobernatze Publikoari, alegia, Euskadiko Administrazio Publikoaren Politika Publikoak Berritzeko eta Ebaluatzeko Ereduen Estrategiari buruzko agiri estrategikoa sustatzeko.

Halaber, eta adierazitakoaren osagarri, estrategia-berregokitzapeneko prozesu horren esparruan, EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok honakoak egiteko konpromisoa hartzen dugu:

- Planifikazioan adostasuna edo gatazkak konpontzea bilatzen duten prozesuak biltzea, ekonomia- eta gizarte-eragileen eta hiritarren parte hartzea indartuz politika publikoak lantzeko prozesuetan.
- Etengabe ebaluatzea politika publikoak eta horiek zenbateraino betetzen diren, kalitatezko eta politika horien aplikazioaren eraginkortasuna eta efikaziaren aldizkako balorazio tresna gisa.
- Planifikatzeko eta koordinatzeko prozesuak aplikatzea baliabideen banaketari eragiten dizkioten politiken epe ertain eta luzeko programazioari.
- Planifikazio orokorra erakundearteko esparrura zabaltzea, Politika Publikoen Euskal Kontseiluaren eratze bidean aurrera eginez. Kontseilu hori izango da politika publikoen planifikazio bateratuaren eta koordinazioaren organoa, eta Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta Udalen ordezkariak izango ditu.

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak alderdiok geure sistema demokratikoa garatu beharraren eta herritarrek gai publikoetan parte har dezaten bideak jartzeko beharraren aldekoak gara. Guztion arazoekiko konpromisoa aldeztu nahi dugu eta, gure ustez, Administrazioen erantzukizuna da parte hartze hori erraztea eta sustatzea. Beraz, Gernikako Autonomia Estatutuaren 18.5 artikuluan, gizarte-politikei buruz, ezarritakoa geure eginez, hitz ematen dugu gizarte- eta demokrazia-partizipazioko mekanismoak bultzatu eta inplementatuko ditugula, hala nahi duten guztiek parte har dezaten, legegintzaldi honetan Euskal Gobernatzeko Publikoari buruzko hausnarketatik sor litezkeen erakundearteko foroan bitartez, politika publiko guztien diseinuan eta planifikazioan.

Beste alde batetik, egiturazko eta antolakuntzako ikuspegi batetik, honako hauek egiteko konpromisoa ere hartzen dugu:

- Administrazioa berregokitzea, eta honako ezaugarriak dituen erakunde bilakatzea: egitura lauagoak, eduki handia duten funtzio-arloak biltzea, egitura homogeenak osatzea, kudeaketarako marko komunak zehaztea, lurralde-antolaketa zerbitzuak ematera bideratzea eta antolakuntza-egitura autonomiadunak sortzeko mugak jartzea.
- Herritarrentzako arreta hobetzea, ikuspegi zentralizatu eta kanal askotariko batetik.
- Administrazio elektronikoa garatzea, herritarren beharrak eta itxaropenak asetzearren, zerbitzu berriak diseinatuz, horien erabilerari nahikoa euskarri emanez eta erabilera sustatuz.
- Informazioaren teknologia berriak bultzatzen jarraitzea zerbitzu eta aplikazio elektroniko berriekin batera, "ON line" Administrazioaren Plan Estrategiko berria onartzea eta Administrazio Publikoak Interneten daukan presentzia hobetzea.
- Sare fisiko, teknologiko eta logikoa ezartzea euskal Administrazio Publikoen artean, Administrazioa herritarrengana hurbiltzearren, azpiegitura teknologikoak garatzeko beharrezkoa den masa kritikoa ziurtatzearren eta Administrazioen arteko interoperabilitatea eta informazio-trukaketa erraztearen.

2) Giza baliabideen politika eraginkorra

Aurreko legegintzaldian jarduera garrantzitsuak garatu dira esparru honetan, hala nola, lanpostuen zerrendak Talde eta Mailei buruzko Legea egokitzea, lanpostuen zerrenden esparruan funtzio-analisiak idatzi eta ezarri dira, euskal Administrazio Publikoak funtzionarioz hornitzeko alorrean Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arau-garapena bideratu da, EAeko Administrazioan dihardutenentzat Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea eratzea onartu da eta kontratazio-eredu berriak ezarri dira, esaterako zatikako erretiroa aplikatu da, aldi baterako eta errelebo kontratuaren harpidetzaren bidez.

Hautaketa- eta horniketa-prozesuen modernizazioak, lan-garapenerako prestakuntzak duen garrantziak, baliabideen esleipenean eraginkortasunak eta efikaziak eta Administrazio osoan lan-harremanak era orekatu eta homogeen lantzeak baldintzatuko dituzte etorkizuneko erronka berriak. Jarduera-printzipio horiek oinarri ditugula, EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak taldeek konpromisoa hartzen dugu honako jarduera hauek garatzeko:

- Prestakuntzaren Plan Zuzentzailea onartzea, eta prestakuntza-beharrak aztertu ondoren, zerbitzu publikoak hobeto eta eraginkorrago emateko Administrazioak lehenesten dituen prestakuntza-programak garatzea.
- Langileak arrazionalizatzeko eta berriro esleitzeko Plana onartzea.
- Estrategia-hausnarketa egitea, sektorearen dimentsionamenduari buruzkoa eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Erakundeen Administrazioetako plantilletako lan-mailen araberakoa.
- Administrazioaren sektoreetako azpikontratazioaren edo kanporatutako zerbitzuen baldintzen eta ereduaren irismena eta edukia aztertzea, bai eta azpikontratutako langileei aplika dakizkiekeen lansari-bermeak eta lan-baldintzak ere.
- Administrazioan diharduten plantillen zahartze progresiboa aztertzea eta planifikatzea, eta, hala badagokio, plantillak gaztetzeko kostuak ebaluatzea.
- Zerbitzuetako Ikuskaritza Nagusia sortzea.
- Gobernuak ezarritako irizpide orokorrekin bat etorrira, negoziazio kolektiboaren edukiei eta mugei buruzko elkarriketarako, koordinaziorako eta, hala badagokio, erabakitzeko funtzioak bermatuko dituzten tresnak ezartzea.

3) Hazkundearen eta elkartasunaren zerbitzurako finantza-sistema

Euskadik badu bere beharrekin bat datorren zerga- eta finantza-politika garatzeko autogobernuko funtsezko tresna: Kontzertu Ekonomikoa. Euskadiko zerga- eta finantza-politika egin behar da horretarako ezarrita dauden organoetatik, Europar Batasuneko arauekin bat etorrira, baina gure testuinguru makroekonomikoa zein den eta gure finantza publikoen egoera zein den ahaztu gabe,

izan ere, helburua da Europar Batasuneko herrialde aurreratuenen ongizate eta gizarte-babes maila lortzea.

EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak taldeon ustez, funtsezkoa da, eskura dauden finantza-tresna guztien bidez, herritarrek eskatzen dituzten zerbitzuak eskaini ahal izateko beste baliabide batzuk bermatzea, oinarrituta, batetik, zerga-sistema orekatu, progresibo eta nahikoan, eta, bestetik, zerbitzu publikoen kudeaketa koordinatu, eraginkor eta efikazean.

Horrenbestez, honako helburuen aldeko gobernu-ekintza garatzeko konpromisoa hartzen dugu:

- Kontzertu Ekonomikoa erabat egokitzea Europako markoan, foru zerga-sistemen orokortasuna aintzat hartuz. Era berean, Estatuaren esparruan, beharrezkoa da, azken aldian auzitegiek egin dituzten interpretazioak, foru ahalmena murriztu edo ukatzen dituztenak, kontuan hartuta, Kontzertu Ekonomikoa defendatzea eta, hala badagokio, aldatzea, zergen esparruan gure erakundeen ahalmen arautzailea argi eta garbi jaso dezan eta horren interpretazio zatikakorik edo interesaturik izan ez dadin.
- Finantza gaietan Estatuarekin dauden desadostasunak gainditzea, eta eskatzea euskal administrazioaren eta administrazio zentralaren artean 2002an hartutako erabakiak aplikatzeko.
- Gaur egungo bost urteko Kupoaren Legea (2002-2006) berritzea, baliabide-maila nahikoa bermatzearen.
- Administrazio zentralaren eskumenak direla-eta, Euskadiko gastu- eta inbertsio-konpromisoak ezartzeko bidean aurrera jarraitzea.
- Euskal Administrazio Publikoen finantza-nahikotasuna bermatzen jarraituko duen (Aportazioen Lege berria) baliabideen banaketa-eredua finkatzea.
- Lurralde Historikoetako erakundeekiko koordinazioa, armonizazioa eta lankidetzatza bultzatzea zerga-praktika garatzeko alorrean.
- Finantza-merkatu publikoan gaur egun dauden tresnei buruzko hausnarketa estrategikoko prozesuari ekitea, baliabide publikoak arrazionalizatzearen eta optimizatzearen, Euskadiko finantza-sistema publikoaren irmotasuna areagotuz, eta Administrazio Orokorraren eta Erakunde finantza-baliabideak bildu eta optimizatuko dituen Finantzen Euskal Agentzia edo Erakundea sortzeko egokitasunari buruzko hausnarketari ekitea.
- Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei aplikatu dakiekeen araudia berriro aztertzea, gardentasuna eta bazkideei ematen zaien informazioa hobetzearen eta bazkideei aurrezki-aurreikuspen arloan erabaki hobek hartzeko aukera eskaintzearen, betiere helburu dela erakunde horien garapena sustatzea eta euskal herritar guztiengana zabaltzea.
- Euskadiko kreditu-kooperatibak legez arautzea, izan ere garrantzi handia dute ekonomiaren planifikazioan eta antolamenduan eta, bestalde, gizarte-dimentsio handia dute.

- Lehiaren Defentsarako Euskal Epaitegia abiaraztea. Segurtasun juridikoa, independentzia, gardentasuna eta efikaziaren printzipioekin bat etorruta, lehia askea sustatuko luke eta praktika murriztaileen aurka arituko litzateke.

4) Lurralde eta udal kohesioa

Euskadiko autogobernurako berebiziko garrantzia dute barne antolamenduak eta kohesioak. EAJ-PNV, EA eta EB-Berdeak taldeen ustez, beharrezkoa da gure lurraldearen erakunde-antolamenduaren ereduari buruzko hausnarketa-prozesuari ekitea adostasun handiagoa lortzearen eta etorkizunean garatuko dela bermatzearen.

Hala bada, Lurralde Historikoen autogobernuak eta udal autonomiak eskaintzen duten bermeaz baliatuta, euskal erakundeen gaur egungo sarea hobetu eta guztion artean egokitzeko bidean jartzearen aldekoak gara, udalak modu koordinatuz eta armonikoz lotuz beste bi erakunde-mailekin.

Ildo horretatik, beharrezkotzat jotzen dugu lurraldeko erakunde-egituraketari buruzko hausnarketari ekitea, adostasun handiagoa lortzearen eta bermatzearen jarraitu eta garatuko dela. Horrenbestez, honakoak egiteko konpromisoa hartzen dugu:

- Lurralde Historikoen Legea, harremanetako erakunde markoa dena, berriro aztertzea, adostasun politikoak zehaztu ondoren, eta betiere politika publikoetarako duen funtzionaltasuna hobetzeko eta modernizatzeko.
- Udal mailako elkarrizketa publikoa argitzea eta bultzatzea, bai mugimendu asoziazionistarekin bat etorruta, edo bai aniztasun politikoaren kudeaketa eraginkorra bermatuko duen beste edozein eredurekin bat etorruta ere.
- Euskal udalen eskumenak areagotzea, sektorekako tratamenduen bidez. Kantitatea areagotu baino kalitatea hobetzea izango du helburu, hau da, udal erakundeek politika publikoetan parte hartzeko aukera handiagoa izatea, eta, nahikoa baliabide eduki gabe ere, beretzat hartzen dituzten jarduera kudeatzaileak zehaztea.
- Udal erakunde-egituraketari buruzko eztabaida bereiztea “toki hitzarmena” izeneko diskurtso nahasi eta interesatutik, izan ere euskal erakunde-sare osoan aurrera egitea da helburu, bai eta udalak modu koordinatuz eta armonikoz lotzea beste bi erakunde-mailekin ere.
- Adostasun politiko zabala abiapuntu dela, Euskadiko Udal Legea lantzea eta onartzea, erakundearteko lankidetzaren areagotzearen eta, finantza-baliabideen nahikotasuna oinarri dela, udalen autonomian eta eskumen-mailan sakontzea.
- Gainbehera etorritako hirialdeak biziberritzea eta berpiztea azpiegiturarako inbertsioen bidez bai eta hiri-, gizarte- eta ingurumen-hornikuntzaren bidez. Horretarako, legegintzaldi honetan, IZARTU-2 Programa eta Ekonomia- eta Gizarte-inbertsioen Erakundearteko Plan Berezia bukatuko dira, eta horien ebaluazioak erakutsiko du berriro diseinatu edo jarraitu behar duten.

arauetan aurreikusten diren helburuei jarraituta.